



[PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA TOKI-  
ERAKUNDEETAN. MATERIAL LAGUNGARRIA]

[5]

HAURREK ETA NERABEEK TOKI  
MAILAN PARTE HARTZEKO ORGANOAK  
DISEINATZEKO GIDALIBURUA



[PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA TOKI-  
ERAKUNDEETAN. MATERIAL LAGUNGARRIA]

[5]

HAURREK ETA NERABEEK TOKI  
MAILAN PARTE HARTZEKO ORGANOAK  
DISEINATZEKO GIDALIBURUA

Dokumentu hau Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako Atalak (Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua) eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren lankidetzarekin, argitaratzen duen koaderno-sail batekoa da. Sail horren bidez, partaidetza hobetzen eta zabaltzen lagundu nahi da, plangintza eta kudeaketa tresna izan dadin Nafarroako toki erakundeetan.

**Editorea:** Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua. Nafarroako Gobernua.

**Laguntzailea:** Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF) | UNICEF- Nafarroa

**Edukiak:** EDE fundazioa

**Kontraste teknikoa:** David Soberanas (Iruñeko Udala), Alicia Olza (Pauma SL) eta Mainer Gabilondo (Unicef - Nafarroako Batzordea).

**Irudiak:** Tantatic, SL

**Diseinua eta maketazioa:** Javier García (todocambia.com)

**Inprimatzea:** Ziur Gráfica

**Legezko gordailua:** LG NA 776-2020

<b>1 I AURKEZPENA .....</b>	<b>7</b>
<b>2 I PARTE-HARTZEA ETA HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA.....</b>	<b>8</b>
2.1. PARTE-HARTZEA.....	8
KONTZEPTUA ETA LOTUTAKO IDEIAK.....	8
ZERGATIK ETA ZERTARAKO BULTZATU PARTE-HARTZEA.....	8
PARTE HARTZEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK .....	9
PARTE HARTZEKO PROZESUETAN EGON DAITEZKEEN ERAGILEAK.....	10
PARTE HARTZEKO PROZESU BAT ABIAN PARATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK.....	11
2.2. HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA .....	15
HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA ESKUBIDE GISA.....	15
TOKI ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEAREN BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK .....	16
HAURREN ETA NERABEEN PARTE HARTZEA BULTZATZEKO ORDUAN HAURREI ETA NERABEEI DAGOKIENEZ KONTUAN HARTU BEHARREKOAK.....	16
<b>3 I HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO ORGANOAK DISEINATU ETA ABIAN PARATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO GAKOAK ETA ALDERDIAK: FASEAK ETA METODOLOGIA.....</b>	<b>20</b>
3.1. HASI AURRETIK.....	20
ERAKUNDEEK AURRETIK KONPROMISOA HARTZEA.....	20
PROZESUA DISEINATZEN ETA ZUZENTZEN DUEN TALDE ERAGILEA OSATZEA.....	20
ABIAN PARATZEKO FUNTSEZKO ALIANTZAK IDENTIFIKATZEA .....	21
PROIEKTUA AURKEZTEA ETA FUNTSEZKO PERTSONEKIN BILERAK EGITEA.....	22
TOKIKO EGOERAREN DIAGNOSTIKO LABURRA PARTAIDETZA BIDEZ EGITEA.....	22
3.2. DISEINUA.....	24
EGINKIZUNAK .....	24
OSAERA.....	25
HAREN KIDEAK HAUTATU ETA BERRITZEA.....	26
FUNTZIONAMENDUA .....	27
3.3. ABIAN JARTZEA .....	28
LAN PLAN BAT PRESTATZEA.....	28

ABIAN PARATZEKO FUNTSEZKO EKINTZAK.....	29
PROIEKTUA HERRITARREI ZABALTZEA.....	30
<b>3.4. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....</b>	<b>31</b>
EBALUAZIO PROZESU BATEN EZAUGARRI NAGUSIAK.....	31
EBALUAZIOAN HAURRAK ETA NERABEAK SARTZEKO ZENBAIT ZAILTASUN .....	31
JARRAIPEN ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK .....	32
NEURTZEKO ZENBAIT ADIERAZLE .....	33
<b>4 I ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK NFK-N .....</b>	<b>35</b>
<b>4.1. HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO TOKIKO ORGANOAK .....</b>	<b>35</b>
HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEKO KONTSEILUA _ CASTEJÓN .....	35
HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEKO KONTSEILU IRAUNKORRA _ CINTRUÉNIGO.....	37
HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEKO KONTSEILUA _ MENDABIA .....	39
LORE TXIKI: HAURREK PARTE HARTZEKO ORGANOA _ EGUESIBAR .....	41
HAURREN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (HPHOI) NERABEEN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (NPHOI)URRENERABEEN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (APHOI) _ ZIZUR NAGUSIA .....	43
<b>4.2. HAURREN ETA NERABEEN BESTE PARTE-HARTZE ESPERIENTZIA BATZUK ..</b>	<b>46</b>
SANDUZELAIKO UMETXEA ELKARTEA (SANDUZELAI AUZOA) _ IRUÑA .....	46
PARTE HARTZEKO DIAGNOSTIKOA, IRUÑEKO HAUR ETA NERABEEN ARRETARAKO I. PLANA LANTZEKO _ IRUÑA .....	48
HAURTZAROKO LURRALDEAK _ VILLATUERTA .....	50
<b>5 I ARAUDIA .....</b>	<b>52</b>
5.1 NAZIOARTEKOA.....	52
5.2 EUROPAKOA.....	52
5.3 ESTATALA.....	52
5.4 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA .....	52
<b>6 I NAFARROAKO GOBERNUAK HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZERAKO DITUEN BALIABIDEAK .....</b>	<b>53</b>
6.1 HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ATALA .....	53
6.2 NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA .....	53
6.3 FAMILIAREN ETA ADINGABEEN ZUZENDARIORDETZA .....	54

**7 | BIBLIOGRAFIA INTERESGARRIA .....55**


**ERANSKINAK .....56**

I. ERANSKINA \_ HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA HAURRENTZAKO  
ETA NERABEENTZAKO SUSTAPENARI, LAGUNTZARI ETA BABESARI BURUZKO  
ABENDUAREN 5EKO 15/2005 FORU LEGEAN .....56

II. ERANSKINA \_ HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA NAFARROAKO  
PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOARI BURUZKO MARTXOAREN 22KO 2/2019  
LEGEAN .....57

III. ERANSKINA \_ HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA 2017-2023  
ALDIRAKO NAFARROAKO KOMUNITATEKO FAMILIA, HAUR ETA NERABEEN  
LAGUNTZAKO II PLAN INTEGRALEAN.....60

IV. ERANSKINA \_ HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO ORGANOA ABIAN  
PARATZEA PLANIFIKATZEKO FITXAREN EREDUA.....61







## AURKEZPENA 1

Nafarroako Gobernuak, martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorriz, haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatu nahi du Nafarroako Foru Komunitateko udalerrietan, UNICEFen Espainiako Batzordeak zuzentzen duen Haurren Hiri Adiskideen Programa erreferentzia hartuta.

Horretarako, 2017-2019 aldirako Herritarren Parte hartzea Bultzatzeko Planaren barruan, sei udali (Castejón, Cintruénigo, Mendabia, Eguesibar eta Zizur Nagusia) laguntza eta babesa emateko esperientzia pilotua bultzatu du, haurren eta nerabeen etengabeko parte-hartze eta ordezkaritza tokiko organo bat diseinatu eta ezar dezaten. Lan prozesu hori 2018. urteko erdialdetik 2019. urteko hasierara bitartean egin da.

Helburu nagusi horrez gain, eginiko prozesu horrek helburutzat ere izan du egindako lana sistematizatzea eta esperientzia horien ondoriozko ezagutza gidaliburu praktiko batean jasotzea, Nafarroako beste udal batzuei lagungarri izan dakien era horretako organoak diseinatzeko eta abian paratzeko orduan.

Hala bada, gidaliburu hau lan prozesu horren emaitza da, eta dokumentu praktiko batean parte hartzearekin eta haurren eta nerabeen parte-hartzearekin lotutako kontzeptuzko esparru bat ez ezik, haurrek eta nerabeek parte hartzeko toki organoak arrakastaz diseinatzeko orduan kontuan izan beharreko gakoak, tresnak eta pausoak ere eskaini nahi ditu.

Gidaliburu honek biltzen ditu, halaber, laguntzeko prozesu pilotu honetan parte hartu duten udalerriek diseinatutako organoen esperientziak, bai eta haurren eta nerabeen parte-hartzerako Nafarroako beste esperientzia batzuk ere, horiek jasotzea interesgarria zelakoan.

Azkenik, gidaliburu honetan Europako, Espainiako eta autonomiako araudia ere jasota dago, haurren eta nerabeen parte-hartzearekin lotutako proiektuei heltzeko orduan kontuan hartu behar duguna, bai eta gai honi buruzko dokumentazio interesgarriaren erreferentziak ere, beste atal batean



## 2

PARTE-HARTZEA ETA HAURREN ETA NERABEEN  
PARTE-HARTZEA

## 2.1. PARTE-HARTZEA

## KONTZEPTUA ETA LOTUTAKO IDEIAK

Parte hartzeko ideiarekin definizio itxi bat eskaintzea erraza ez bada ere, herritarrek egikaritzen duten eskubidetzat hartzen da, gidaliburu honetan, herritarren parte-hartzea, bai eta tresna eta lan modutzat ere, herritarrok gure bizitzan eragiten duten alderdi edo elementuen erabakietan eta lanketa kolektiboan parte hartu ahal izan dezagun.

Administrazioaren eta herritarren arteko baterako lan horretan harreman berriak sortzen dira, topaketaren eta eztabaidaren bitartez batez ere, eta horiei esker, aberastu eta konplikatu egiten da landutako alderdiei buruz dugun ikuspegia, ñabardurak gehituz eta gure ezagutza osatuz. Horrela bada, parte-hartzea errealitate soziala kolektiboki eraikitzeko lan tresnatzat hartzen da, baina aldi berean prozesu pedagogiko bat ere bada berez.

Parte-hartzea tresna edo metodologiatzat eta ikaskuntza prozesutzat hartzeko ikuspegi horrekin batera, parte-hartzea ere hartzen da gobernantzarako tresnatzat, gure errealitate hurbila sortzeko eta aldatzeko prozesuan erabakiak hartzeko, esku hartzeko zein inplikatzeko tresnatzat. Elementu horien guztien baturak osatzen du parte hartzearen ideia.

## ZERGATIK ETA ZERTARAKO BULTZATU PARTE-HARTZEA

Parte-hartzea herritarren eskubide bat da, eta behar diren kanalak eduki behar ditugu eskubide hori eraginkortasunez eta arduraz egikaritzeko. Arrazoi anitz eta askotarikoak daude parte hartzeko prozesuak abian paratzeko. Herritarren parte hartzea justifikatzen duten argudioen artean, honako hauek dira ohikoenetako batzuk:

- ▶ Erabaki politikoen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen ditu, gizartean dagoen ezagutzaz baliatzen da eta.
- ▶ Politika publikoak legitimatzen laguntzen du, alderdi interesatuak barne hartzen baititu horiek diseinatu eta lantzeko orduan.
- ▶ Jardun publikoak herritarren interesari eta beharrei hobeki erantzuteko aukera ematen du.
- ▶ Konfiantza sortzen du eta erakundearen eta herritarren arteko loturak indartzen ditu.
- ▶ Kalitate demokratikoa hobetzen du, demokrazia, ordezkari organoetatik haratago, “zabaltzen” baitu.
- ▶ Gizarte eta komunitateko kide izateko sentimendua sustatzen du, eta lagungarria da herritar aktibo eta arduratsuak sor daitezen.

- ▶ Erabakiak hartzeko esparruetatik edo herritartasun aktibotik baztertuta egoten ohi diren sektoreak barnean hartzeko parada ematen du.

Horri lotuta daude parte hartzeko prozesu oro abian paratzean lortu nahi diren helburuak. Lau hauek nabarmentzen dira horien artean:

- ▶ Elkarrizketa ahalbidetzeko oinarriak ezartzea.
- ▶ Errealitatean esku hartzea, eraldatzeko.
- ▶ Komunitatea edo gizartea sortzea.
- ▶ Pertsonak ahalduntzea; izan ere, parte-hartzearen bidez erdietsi nahi da bermatzea, arlo horretan egundoko desberdintasunak dituen gizarte batean, boterea, hau da, subjektu aktiboa eta eskubide osokoa izateko gaitasuna, eskura dezaten askotariko arrazoi edo egoerengatik halakorik ez daukaten pertsonei.

Parte hartzearen helburuaz mintzatzeko orduan, bi orientazio bereiz daitezke. Bi orientazio horiek ez dira bateraezinak ezinbestean, eta, neurri batean, aldi berean gertatzen ohi dira, nahiz eta, prozesuaren arabera, ikuspegi bat edo beste bat gehiago nabarmentzen den.

Hala bada, parte hartzearen azken helburuetako bat izan daiteke erabakiak hartzeko orduan herritarren inplikazioa eta esku-hartzea ahalbidetzea. Horrelakoetan, baliteke prozesuak arreta horrenbeste ez paratzea aberaste pertsonal edo kolektiboan, kasu anitzetan, pertsona kopuru jakin batek erabaki batean eragin dezala ahalbidetzean baizik. Prozesuaren iraupena laburragoa izan daiteke, eta hautatutako teknikak horren arabekoak izanen dira (galdeketak, eztabaidak...).

Parte hartzearen helburua ere izan daiteke, ordea, garapen kolektiboa eta ingurune sozialarekiko inplikazioa indartzea. Horrelakoetan, apustua izanen da denboran luzeago dirauten dinamikak abian paratzea, zeinen bitartez ingurunearen ezagutza handiagoa izatea, duten errealitatean gehiago inplikatzea eta eragileen eta beren errealitateen arteko erlazio prozesu bat egotea erdietsiko den.

## PARTE HARTZEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK

Pertsonek parte hartzeko edozein prozesutan parte hartzeak aurretiko baldintza jakin batzuk egotea eskatzen du, eta prozesua bultzatzen duen erakundeak, administrazio publikoek kasu gehienetan, eragiteko nolabaiteko gaitasuna izaten du horietan.

Pertsonek edozein prozesu motatan parte har dezaten behar diren baldintzak honako hauek dira:

- ▶ Parte hartu nahi izatea, hau da, horretarako motibatuta egotea. Elementu subjektiboa eta banakoa izan arren, era horretako prozesu batean parte har lezaketen pertsonak motibatuzeko zeregina garrantzitsua da.
- ▶ Parte hartzen jakitea, edo gauza bera dena, harremana, entzutea, eztabaidatzea, negoziatzea... eskatzen duten dinamiketan parte hartzeko gaitasuna edukitzea. Parte-hartzaile bakoitzak prozesuaren hasieran dituen gaitasunez gain, nolabaiteko prestakuntza

eduki behar du horrek (formala, ez formala edo informala), gaitasun horiek garatu ahal izateko eta prozesua baldintza onetan gerta dadin.

- ▶ Parte hartu ahal izatea; egitura edo esparru batzuk behar dira horretarako, parte-hartze erreal eta eraginkorra ahalbidetzen, bideratzen edo errazten dutenak.

## PARTE HARTZEKO PROZESUETAN EGON DAITEZKEEN ERAGILEAK

Parte hartzeko prozesuetan oso askotariko profilak dituzten pertsonak aurkituko ditugu: ordezkari politikoak, administrazio publikoko teknikariak, gizarte zibilaren elkarte edo erakundeetako kide diren pertsonak edo banakoak.

Profil horietakoren batek prozesu bakoitzean parte hartzea edo ez, edo kolektibo horrek horren barruan garrantzi handiagoa edo txikiagoa izatea, hasi aurretik zehaztu beharko da, parte hartzeko prozesu bakoitzaren helburu eta zehaztasunekin bat etorriz.

Garrantzitsua da kontuan hartzea parte hartzeko prozesu batean esku hartzen duten eragile guztiek beren interesak, itxaropenak, beldurrak, erresistentziak, aurreiritziak eta erritmoak dituztela edo izan ditzaketela, eta balitekeela horrelakoek parte hartzeko prozesuen dinamikari eragitea; hori dela eta, lehendik aurreikusitako behar dira, ahal den neurrian, gertatzen ahal diren halabehar horiek, baita horiek nola konpondu ere.

Hala, arduradun politikoei dagokienez, beharrezkoa da, esate baterako, argi edukitzea alderdikeriaz erabiltzeko tentaldi orotatik kanpo utzi behar dutela prozesua, baita alde aurretik hartutako erabakiak legitimatzeko asmoetatik kanpo ere. Gogoan ere izan behar dute parte hartzeko prozesuetan balitekeela une gatazkatsuak edo deserosoak egotea; horregatik, argi eduki behar dute balitekeela nolabaiteko “bertigo” uneak egotea, eta erakundeak horrelakotan guztia kontrolpean ez edukitzea.

Teknikariak daude, halaber; baliabide ezinbesteko, kualifikatu eta ilusionatua da, gaiak dakiena, funtsezko osagaia dira, horrenbestez. Hala eta guztiz ere, zenbaitetan teknikariek, gaiaren kontrol teknikoaren ondorioz, zuzentzeko eginkizuna hartu nahi izaten dute beren gain, eta baliteke uzkur izatea prozesuari lotuta gerta litezkeen antolaketa aldaketan aurrean, bai eta prozesua lan karga gehigarritzat hartzea. Arlo horretako arazoak arintze aldera, garrantzitsua da konpromiso politikoa egotea eta teknikariei ikusaraztea parte hartzearen aldeko apustua apustu serioa dela eta horri erantzuna eman behar diotela, beste eskari politiko anitz ematen dieten bezala, bai eta parte hartzearen helburua haien lana eraginkorragoa izatea dela.

Herritar antolatuei dagokienez, garrantzitsua da bermatzea lurraldean dauden edo beren eginkizuna prozesuan jorrotutako lan esparruan garatzen duten elkarte eta kolektibo guztiak egon daitezen, dauden ahots antolatuen aniztasuna islatuta egon dadin. Era berean, komeni da egon litezkeen zenbait logika hausten saiatzeari, hala nola elkarte batzuk sentitzea sektore baten edo biztanle guztien eskariak eta itxaropenak adierazteko ahots baimendu bakarrak direla, edota elkarte batzuek erakundeekiko elkarriketan harreman pribilegiatua izatea.

Parte hartzeko prozesuen erronka nagusietako bat da herritar ez antolatuengana era erreal eta eraginkorraz iristea, horiek mobilizatzen saiatzea eta herritar ez antolatuek ilusia izan dezaten erdiestea, eta era horretan, erakundearekin gai zehatzak eskatzeko baliatzen dituzten delegatzeko logikak edo logika bertikalak gaindi ditzaten. Kontua da herritarrak sentibilizatzea subjektu politiko aktibo izan behar direla, eta ez beste batzuek haien izenean hartzen dituzten erabakien objektu pasibo hartzaile. Nola edo hala iritsi behar da herritar ahulenen edo horren antolatuta ez daudenen sektoreetara, hala nola haurrengana, adinekoengana, etorkinengana, etab.

### PARTE HARTZEKO PROZESU BAT ABIAN PARATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Parte hartzeko prozesu bat abian paratzeko orduan kontuan hartu beharreko alderdi batzuk adieraziko ditugu orain:

- ▶ Kanpoko ekintzak barneko behar bati erantzun behar dio, eta parte-hartzea ikaskuntza prozesu bat dela izan behar da gogoan.



- ▶ Eragileek (administrazioa, elkarteak, herritarrak, haurrak, nerabeak...) abiapuntuan dituzten logikak arras bestelakoak dira denborei, estiloari, lehenetsiei, interesiei eta abarrei dagokienez.
- ▶ Bultzatu nahi diren prozesuak ez dira zerotik abiatzen. Beti dago beste prozesu batzuen edo eragileen arteko harremanen aurretiko oroitzapen bat, eta baliteke horrek garatu nahi dugun prozesua baldintzatzea. Aldi berean, bultzatu beharreko prozesu berria aukera bat ere bada informazio trukea, gardentasuna, errespetua, etab. oinarri dituen konfiantzazko harremana finkatzeko.
- ▶ Askotariko arrazoiak daude “pertsonak eta elkarteak ez etortzeko, ez inplikatzeko, ez parte hartzeko...”, eta prozesuen arduradunek eragiteko parada izanen dute horietako batzuetan:
  - ↳ Deialdiak egitean izandako erroreak edo defizitak: erabilitako kanalak edo epeak ez dira hagitik egokiak, ez dugu jakin motibatzen...
  - ↳ Herritarrei gehien axolatzen dieten eta inplikazio handiagoa lor dezaketen gaiak mahai gainean ez jartzea. Zenbaitetan parte hartzeko deia egiten den gaiak deialdia egiten duenari axola dio, baina ez, ordea, horien hartzaille direnei.
  - ↳ Dena delako prozesu horretan parte hartu behar dutenen behar edo gaitasunei egokিতa ez egotea prozesuaren diseinua.
  - ↳ Data, denbora eta toki desegokiak. Zenbaitetan, diseinatzen diren prozesuak edo egiten diren deialdiak ez dira komenigarriak edo egokiak hartzailleendako, ez baitira bateragarriak honako arrazoi hauengatik, besteak beste: datengatik (oporraldian edo egun edo aldi berezietan izatea...), ordutegiagatik (lanaldiaren barruan, kontziliazio zailtasunak, beste jarduera batzuekin batera direlako...) edo hautatutako tokiak egokiak ez direlako (urruti daude, deitutako pertsona batzueendako toki horrek esanahi berezia duelako...).
  - ↳ Lan egiteko epeak, erritmoak eta moduak onartzeko modukoak ez izatea, dela bileren kopuru eta maiztasunagatik, iraupenagatik, egin beharreko lanaren kantitate eta eskakizunagatik, etab.
  - ↳ Deitutako pertsona anitzek parte hartzeari denboran eusteko zailtasunik izatea.
- ▶ Dauden diskurtso guztiak barnean hartu behar dira, pluraltasuna bilatzeko, eta horrela, ahots kritikorik ez dagoenez, txikiagoa izan dadin prozesuak porrot egiteko eta horri zenbaitetik zilegitasuna kentzeko edota haren emaitzen aurka agertzeko arriskua.
 

Era berean, horrela nahi duenak prozesuan parte ez hartzeko borondatea izatea errespetatu beharra dago, baina ona da erabaki horretara eraman duten arrazoiak entzutea eta gogoan izatea, eta posible izanez gero, iritzi horiek jasotzeko ordezkoko bideak bilatu behar dira.
- ▶ Parte-hartze sozialeko ekimen eta era berriak barnean biltzen saiatu behar dira, hala nola lege formalizatuta ez dauden kolektiboak edo, gai jakin bat jorratzeko, aldi baterako eraturtutakoak, lurraldeko gizarteko ehunaren parte direnak, eta alternatibak proposatu behar dira eta begirada kritikoa eduki.

- ▶ Prozesuan erabilitako hizkuntza faktore baztertzaila izatea edo parte-hartzea zailtea eragotzi behar da. Horretarako, beharrezkoa izanen da hizkuntza administratiboa parte hartzen duten pertsoneri itzultzea, eta herritarrek esaten dutena ere hizkuntza administratibora itzultzea, eskaera, iritzi eta behar horiek gehitu ahal izan daitezen haien bizitzearagiten dieten plan eta proiektuetara.

Idea horren azpian dago parte-hartze guztiak kualifikatuak direlako ustea, parte hartzen duten pertsonen prestakuntza maila edo diskurtso bat egituratzeko daukaten gaitasuna dena dela; horrenbestez, horiek txertatzen jakin beharra dago besterik gabe.

- ▶ Eragile ezberdinek batera lan egin behar dute parte hartzeko prozesuan. Hori ez dugu nahastu behar rolak elkarri trukatzearekin. Garrantzitsua da jende guztiak ulertzea zer eginkizun betetzen duen, harremanean izaniko aldaketa ez dadin nahastu parte hartzen duen eragile bakoitzaren erantzukizun aldaketa batekin.





- ▶ Prozesuari ekin aurretik, lan esparrua argi eta garbi adierazi behar da, bereziki mugarik edo irizpiderik dagoen.
- ▶ Epeak argi eta garbi mugatu behar dira; hau da, prozesua noiz ireki eta itxiko den.
- ▶ Prozesuaren neurria eskura dauden giza baliabideetara eta bitarteko ekonomikoetara egokitu behar da.
- ▶ Lagundu behar da prozesua beti inklusiboa izan dadila, era horretan, parte-hartzea mugatu beharrean, betiere ahal den neurrian, aukera eman dezan hala nahi duena prozesura erraztasunez batzeko.
- ▶ Bermatu behar da parte hartzea informatua, hausnartua, berdintasunezkoa izatea, emaitza zehaztetara iristea eta erantzuna edo itzulketak edukitzea.

Alderdi orokor horietaz gain, haurren eta nerabeen parte hartzeari dagokionez, horiei lagun egitea ere hartu behar dugu kontuan, ezinbesteko tresna delakoan, harreman proaktibo eta konfiantzazkoan oinarrituta





## 2.2. HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA

### HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA ESKUBIDE GISA

Haurren parte-hartzea eskubide bat da eta Haurren eskubideei buruzko hitzarmenaren (HEH) oinarritzko lau printzipioetako bat, honako hauekin batera: diskriminaziorik ez izatea; umearen interes gorena, eta bizitza, biziraupen eta garapenerako eskubidea.

HEHk, 12. artikuluan, xedatzen du Estatuek bermatu behar dutela neskek eta mutilek beren iritzia osatzeko baldintzetan egotea, eta eragiten dieten egoerei buruzko iritzi askea adierazteko eskubidea dutela, haien iritziak duten adinaren eta heldutasunaren arabera kontuan hartuta.

Horretarako, xedatzen du haurrek trebetasunak eta erantzukizunak har ditzaten laguntzen duten esperientziak abian paratzea bultzatu behar dela, neska eta mutilak, horiei esker, heldu parte-hartzaile eta erantzule izan daitezen bizi diren komunitate edo gizartearekin.

Haurren eta nerabeen parte-hartzeko eskubidea honako hauetan datza:

- ▶ Dagozkien gaien gainean informazio egokia eta behar den kantitate eta kalitatean jasotzeko eskubidea.
- ▶ Kezka edo interes iturri dituzten gaien buruzko ideiak eta iritzia osatu eta adierazteko eskubidea. Eta lanketa edo adierazpen horretan helduek botere edo eraginik ez izateko eskubidea.
- ▶ Entzunak izateko eskubidea eta emandako iritzia errespetatua izatekoa. Helduek behar diren denborak eta esparruak eskaini beharko dituzte haiei entzun ahal izateko.
- ▶ Haurrek eta nerabeek emandako iritzia kontuan hartua izateko eta eragiten dieten gaien gainean hartzen diren erabakietan eragina izateko eskubidea.

Eskubide hori ere jasota dago Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean, 129. eta 133. artikuluetan, bai eta Konstituzioan ere, 9.2 eta 105. artikuluetan.

Gure Komunitateari dagokionez, **Nafarroako Parte Hartze Demokratikoari buruzko 12/2019** Foru Legeak VI. titulua eskaintzen dio haurren eta nerabeen parte-hartzeari, eta horrela, parte hartzeko, askatasunez elkartzeko, adierazpen askatasunerako eta eragiten dieten erabakiei buruz entzunak izateko eskubidea dutela aitortzen du. Adingabeen parte-hartzeko banako eta taldeko eskubide horrek bide ezberdinetatik sustatzeko, bermatzeko eta babesteko betebeharra dakarkie erakundeei.

Bide horietatik eta gidaliburu honen helburu eta edukiarekin lotura berezia duelako, nabarmendu behar da lege horren 56. artikuluan ezarrita dagoena: “Toki administrazioek jarduketak garatuko dituzte haurren eta nerabeen parte-hartzea beren lurralde eta eskumen esparruan sartzeko; horretarako, toki kontseiluak edo parte-hartze egitura egonkorak sortu eta abian jarriko dituzte, haurrek eta nerabeek osatuak, haiengan zuzenean edo zeharka eragina duten toki mailako gai guztietan kontsulta eta partaidetza eginkizunak izanen dituztenak”. Artikulu horrek berak honako hau ere esaten du: “Nafarroako Gobernuak toki entitateei lagunduko die haurren parte-hartzerako udal organoak era ditzaten”.

## TOKI ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEAREN BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK

Parte-hartzea egon behar da haurrei eta nerabeei zuzendutako tokiko politiken fase guztietan, hala haien diseinuan, nola abian paratzeko eta ebaluatzeko orduan.

Haurren eta nerabeen parte-hartzeak autonomia laguntzen du, pentsamendu kritiko eta propositiboa sustatzen du, bai eta ahots propioa izatea, beren artean eta helduekin hitz egiteko gauza izatea eta jardutea.

Haurren eta nerabeen parte-hartzearen eskakizunetako batzuk honako hauek dira:

- ▶ Borondatezkoa izan behar da.
- ▶ Informatua izan behar da; hau da, parte hartzaileek haren zentzua, prozesua, arauak eta abarrak ulertu behar dituzte.
- ▶ Bere esparruak eta arauak eduki behar ditu.
- ▶ Parte hartzen duten haurren eta nerabeen ezaugarrietara egokituta egon behar da.
- ▶ Parte hartzeak jarraipena izan behar du denboran.
- ▶ Ebaluatzeko modukoa izan behar da.

Halaber, haurren eta nerabeen parte-hartzeko udal organo horiek honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- ▶ Egiatzko tresna izatea eta haren bitartez udalerrriaren bilakaeran eta hartu beharreko erabaki politikoetan eragiten ahal izatea.
- ▶ Haurrek eta nerabeen informazioa lor dezaten eta ordezkari politikoekin zein tokiko beste eragile batzuekin hitz egiteko kanala izatea.
- ▶ Protagonistek beren eskubideen eta herritartasunaren kontzientzia hartzeko balio behar du, eta dauzkaten eskubideak eta betebeharrak ikas ditzaten.
- ▶ Toki administrazioak aitortu eta legitimatutako esparrua izan behar da.

## HAURREN ETA NERABEEN PARTE HARTZEA BULTZATZEKO ORDUAN HAURREI ETA NERABEEI DAGOKIENEZ KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Haur eta nerabeen parte-hartzea bultzatzeko orduan, garrantzitsua da abiapuntu gisa haurrak eta nerabeak nola diren aztertzea, prozesua nori zuzenduta dagoen, zer interes, zailtasun edo indargune dituzten, eta hori errespetuz egitea, diren bezala joka dezaten utziz eta haien iritzien berri jasoz, bultzatu beharreko organoa hartzaileei egokitzea funtsezko faktorea baita arrakastatsua izan dadin.

Besteak beste, honako elementu hauek errazten ahal dute haurren eta nerabeen parte-hartzea:

### △ MOTIBAZIOA ETA IKASKUNTZA:

Hurrek eta nerabeek sentitu behar dute parte hartzen ari diren prozesuak identifikatzen diren behar edo nahi bati erantzuten diola.

Maiz, parte hartzearen sustapenak sustatzaileen borondate edo behar bati erantzuten dio parte hartzeko ekintza zuzenduta dagoen haur eta nerabeenari baino gehiago.

Motibazio eta ikaskuntzarekin batera parte hartzeari zer zentzu ematen zaion ere egon behar da, zertarako balio duen jakin behar da.

### △ KIDE IZATEKO SENTIMENDUA:

Haur eta nerabeen taldeko edo komunitateko kide izanik aiseago hautemanen dute landutako gaiek benetan eragiten dietela eta berezkoak dituztela.

Anitzetan, helduek pentsatzen ohi dute talde edo komunitate bateko kide izateko beren sentimendua haur eta nerabeei ere zabaltzen zaiela, eta hori ez da horrela ezinbestean.

### △ ERABAKITZEKO GAITASUNAREN ETA ALDATZEKO AUKERAREN ITXAROPENAK:

Haur eta nerabeek egiten ari diren horrek zerbaiterako balio duela eta horren bitartez gauzak aldatzeko aukera dagoela sumatzea garrantzitsua da haien parte hartzeari begira.



Era berean, ona da itxaropenak ez sorraraztea, baldin eta, borondate ona gorabehera, horiek betetzen ahal izanen diren ez badakigu, horrela haur eta nerabeen artean frustrazioa sortzea eragotziko baitugu.

#### △ ZEHAZTASUNA:

Haur eta nerabeak pragmatikoagoak izaten ohi dira helduak baino, eta ondorioz, behar izaten dute parte hartzeko prozesua denboran luza ez dadin eta anbiguotasunetan gal ez dadin. Garrantzitsua da hagitz ongi mugatzea proiektuen denbora eta zabaltasuna.

Prozesuak garrantzitsuak badira ere, emaitzak ere hala dira (are gehiago haurrei eta nerabeei dagokienez, egiaztagarri izan behar baitira), eta horregatik, garrantzitsua da akordioak eta konpromisoak zehaztea.

Aiseago parte hartuko dute erraz eta egunerokoari lotuta egiten bada, testuinguru baten barruan, ikuspegi inklusiboz eta parte hartzeko kulturari jarraikiz.

#### △ ASKATASUN SENTIMENDUA:

Haurrak eta nerabeak eroso eta solastatzeko askatasun osoz sentitzeko behar bezain ireki eta malguak izan behar dira proiektuak.

#### △ AHALDUNTZEA:

Haurrek eta nerabeek sumatu behar dute prozesu edo organo horietan ohikoa baino rol ezberdinagoa dutela helduekiko, eta beren iritzia eta esaten dutena kontuan hartzen dela.

Horretarako, garrantzitsua da helduek modu aktiboan eta jakin-minaz entzutea, eta haien iritzia aintzat hartzea.

#### △ MODU HURBILAK:

Garrantzitsua da parte hartzeko prozesu eta organoetan erabiltzen diren moduak eta hizkuntza zaintzea, lagungarri baitira haurrek eta nerabeek zer esan nahi dugun uler dezaten, partaide sentitzeko eta dituzten gaitasun guztiekin parte har dezaten.

Parte hartzeko esparruen sustatzaileek, ahal den neurrian, helduen erregistroak baztertu behar dituzte (irekiera instituzionalizatuak, hizkuntza teknikoa...), horrelakoak oztopo baitira haurrek parte har dezaten.

#### △ SEGURTASUNA:

Bermatu behar da lana giro eraikitzaile, positibo eta errespetuzkoan garatzea, eta haurrak eta nerabeak eroso sentitzea, eta ez herabetu.

Bereziki aisatu behar da zailtasun gehien duten adingabeen parte-hartzea, horrek ahalegin handiagoa ekarri arren.

#### △ DIBERTSIOA:

Gauza jakina dirudien arren, gogorarazi behar dugu haurrek eta nerabeek ezin dutela parte

hartzea sakrifiziotzat hartu, horrek motibazioa galaraziko die eta. Atsegintzat jotzeko formulak bilatu behar dira.

#### △ MALGUTASUNA:

Proposamen edo eskaera batzuk gauzatzeko dauden mugak, legezkoak edo bestelakoak, gorabehera, komeni da malguak izatea (muga batzuen barruan, jakina), eta proposamenak ez baztertzea teknikoki ezinezkoak direla edo legez kanpokoak direlako aitzakiapean; hala bada, saiatu behar gara negoziazioaren bidez edo formula berritzaileen bidez alderdi guztiek onartzeko moduko irtenbideetara iristea.



## HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO ORGANOAK DISEINATU ETA ABIAN PARATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO GAKOAK ETA ALDERDIAK: FASEAK ETA METODOLOGIA

### 3.1. HASI AURRETIK

#### ERAKUNDEEK AURRETIK KONPROMISOA HARTZEA

Haurrek edo nerabeek parte hartzeko tokiko organo bat abian arrakastaz paratzeko orduan beti egon behar den eskakizunetako bat da erakundeek proiektuarekiko konpromisoa agertzea.

Parte hartzeko organo hori bultzatzeko ideia edo eskaria administrazioak edo bestelako erakunde edo organismoek egitea alde batera utzita (elkarteak, ikastetxeak, familiak...), apustu politika irmorik ezean nekez burutuko da parte hartzeko egitura diseinatu eta abiarazteko prozesua eta ez zaio horri denboran eutsiko.

Alkatetza eta gobernu taldeaz gain, komeni da oposizioko taldeek ere parte hartzea proiektua babesten eta bultzatzen, horrelakoak tartean egoteak adostasun handiagoa egotea baitakar eta indar handiagoa ematen baitie parte hartzeko organoari bereziki, eta haur eta nerabeendako udal politikei, orokorrean. Arlo politikoaren inplikazio eta borondate hori argia izan behar da, eta parte hartzeko organoa indarrean dagoen aldi osoan iraun behar du.

#### PROZESUA DISEINATZEN ETA ZUZENTZEN DUEN TALDE ERAGILEA OSATZEA

Haurren eta nerabeen parte hartzeko organo bat tokiko mailan diseinatzeak eta abian jartzeak dakartzaten erabakiak hartzeko eta zereginak garatzeko, beharrezkoa da, arras, egitura bat diseinatzea, ardua politikoak eta teknikoak dituzten pertsonen parte-hartzea uztartuta. Hala, komeni da egitura hori, talde eragile deitzen ohi dena, gutxienez honako kide hauek osatuta egotea:

- ▶ Alkatea.
- ▶ Arlo honekin lotura gehien duten ardurak dituzten zinegotziak: haur eta gazteak, parte-hartzea edo antzekoak.
- ▶ Beharrezko edo gomendagarri jotzen diren beste arlo batzuetako zinegotziak.
- ▶ Oposizioko talde politikoen zinegotziak.
- ▶ Haur eta gazteekin eta parte hartzearekin lotura handien duten arloetako edo antzeko beste batzuetako teknikariak.
- ▶ Beharrezko edo gomendagarri jotzen diren beste arlo batzuetako teknikariak.

Talde honi zeregin nagusi hauek dagozkie: prozesuaren ondorioz sortzen den parte hartze-ko organoa diseinatu eta abian paratzeko lan plan bat prestatzea, zereginak, arduradunak eta epeak zehaztea, plan hori burutzea edo egiten dela ziurtatzea eta garatutako lanaren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Eginkizunen artean ditu, halaber, dauden dokumentuen zirriborroak berrikusi eta baliozkotzea, eta barneko eta kanpoko komunikazioa egin edo koor-dinatzea.

Era berean, talde eragilea indartzen ahal izanen da toki mailako funtsezko eragile batzuen arduradunekin, hala nola ikastetxe, gurasoen elkarte, asoziazio eta abarretakoekin, aurreiku-sitako zereginak behar bezala egin daitezten.

### ABIAN PARATZEKO FUNTSEZKO ALIANTZAK IDENTIFIKATzea

Haurrek edo nerabeek parte hartze-ko tokiko organo bat abian paratzeko orduan, zeregin nagusietako bat lan hori egiteko funtsezko eragile aliatuak zein diren zehaztea da.

Aliantzez edo eragile aliatuez hitz egiten dugunean, erakunde, entitate edo kolektiboez ari gara, eta ez horrenbeste banako pertsonaz; organismo horien laguntza edo esku-hartzea funtsezkoa baita parte hartze-ko tokiko organoak arrakastaz jardun dezan.

Lan horretan laguntzen ahal duten eragileak edo lan egitea edo elkarlanean aritzea zeinekin den interesgarri adieraztea bezain garrantzitsua da argi edukitzea agian ez dela posible, ezta praktiko ere, horiek guztiak kontuan hartzea; horregatik, komeni da zerrenda bat egitea haurren partaidetzarako organo bat abian paratzeko funtsezko aliatuekin.

Zer aliantza diren funtsezko zehazten laguntzen ahal dute honako galdera hauek, besteak beste: Gure helburuari begira, ez daukagun zerbait emanen al digu? Estrategikoa al da haren jarrera edo ikuspegia? Motibatze-ko edo mobilizatze-ko gaitasun handirik al du? Prozesua zerbait edo asko errazten al digu? Zergatik eta zer alderditan da funtsezko eragile hori?

Proposamen modura, eta aurreko puntuan bezala, tresna edo fitxa formatuarekin, haurren eta nerabeen partaidetzarako tokiko organo bat abian paratzeko funtsezko aliantzen zerrenda bat osatzeko zer informazio beharko genukeen zehaztuko dugu.

- ↘ 1. Eragilearen izena
- ↘ 2. Zein du jardueratzat eta zer egiten du haur eta nerabeekin lotuta?
- ↘ 3. Zein da haren irismena? Lan egiten duen haurren eta nerabeen kopurua eta profila, sexua eta adina.
- ↘ 4. Zer harreman dugu eragile horrekin?
- ↘ 5. Funtsezkoa izan al daiteke proiektua garatzeko?
- ↘ 6. Zergatik?
- ↘ 7. Zer ekarpen egiten ahal dio proiektu honi?

## PROIEKTUA AURKEZTEA ETA FUNTSEZKO PERTSONEKIN BILERAK EGITEA

Funtsezkotzat jotako herriko erakundeak, entitateak edo kolektiboak zein diren zehaztuta, horiekin harremanetan paratu behar izanen gara, hurrek edo nerabeek parte hartzeko toki-ko organo bat abian paratzeko asmoaren berri emateko, proiektua zehatz-mehatz aurkezteko eta proiektuan edo aurreikusi ditugun haren fase edo zereginetan parte har dezaten eskatzeko. Helburua proiektuaren proposamena informatzea, egiaztatzea eta, hala dagokionean, eztabaidatzea izanen da.

Proiektua batera aurkezten ahal zaie eragile guztiei, sektoreka (ikastetxeak, kirol eta kultur elkarteak...) edo banaka. Zenbait faktoreren mende egonen da hori, aurretik zer harreman dagoen, eragile guztiei gauza bera eskatu edo eskainiko zaien edo ez, harremana pertsonalizatu beharra dagoen, etab.

## TOKIKO EGOERAREN DIAGNOSTIKO LABURRA PARTAIDETZA BIDEZ EGITEA

Diagnostiko bat egiteko, gizarte egoerari adi egoteko prozesu bat ezarri behar da.

Hurrek edo nerabeek tokiko mailan parte hartzeko prozesu edo organo bat diseinatzeko orduan, ezinbestekoa da, abiapuntu gisa, lan egin nahi dugun eta prozesura batu nahi ditugun haurren eta nerabeen egoeraren diagnostiko bat egitea.

Ezarri beharreko parte hartzeko prozesuak eta organoak, nahiz eta beste herri batzuetakoekin antzekotasunak edukitzen eta beste esperientzia batzuk erreferentziatzat hartzen ahal dituzten, ezin dira besterik gabe erreplikatu; hala bada, garatuko diren gizarte errealitateari erantzun eta egokitu behar zaizkio, eta, batez ere, prozesua xede dituen haur eta nerabeei, haien interesei, beharrei, zailtasunei, indarguneei eta abarrei.

Horregatik, hurrek eta nerabeek parte hartzeko tokiko organo bat diseinatzeaz arduratzen den lantaldeak, lehenik eta behin, udalerriko hurrei eta nerabeei buruzko informazioa ematen duten datuak edo bestelakoak labur-labur bildu beharko ditu.

Proposamen modura, tresna edo fitxa hau aurkeztuko dugu; hurrek eta nerabeek parte hartzeko tokiko organo bat diseinatzeko orduan kontuan hartu behar dugun informazioa zehazten da tresna horretan. Abiapuntu gisa balio izatea da haren helburua, tokiko haurren eta nerabeen errealitatea aztertzeko. Atal bakoitza osatzeko orduan, garrantzitsua da gogoratzea horietan bildu beharreko alderdiak, bestelakorik adierazi ezean, hurrei eta nerabeei buruzkoak direla.

- 1. Udalerriko biztanleria osoa eta 0 eta 17 urte bitarteko biztanleak. Komeni da datu hori sexuen eta adin tarte edo taldeen arabera bereiztea (adibidez, eta araututako hezkuntzak ezarritakoari jarraikiz: 0-2 urte, 3-5 urte, 6-12 urte, 13-17 urte).
- 2. Udalerriko haurren eta gazteen gai sozialak edo soziodemografikoak, parte hartzeko organoaren sustatzaileen iritziz nabarmendu beharrekoak: haurren edo nerabeen kolektibo jakin batzuen parte hartze nabarmena, kontuan izan beharreko egoerak...



- ↘ 3. Kontuan hartu beharreko errealitate geografikoa: bizigune bakarra edo zenbait bizigune egotea, haurrak eta nerabeak gune batean, zenbaitetan pilotzea edo lurraldean barreiatu egotea, auzo edo biziguneen arteko komunikazioa, etab.
- ↘ 4. Haurren eta nerabeen ikuspegitik kontuan hartu beharreko tokiko momentu kolektibo garrantzitsuak: jaiak, jardunaldiak, ekitaldiak, jaialdiak eta abarrak.
- ↘ 5. Tokiko haurrek eta nerabeek erabiltzen dituzten komunitate ekipamenduak edo elkartzeko tokiak.
- ↘ 6. Toki mailan parte hartzeko aurretiko esperientziak egotea. Ugari badira, nabarmenak.
- ↘ 7. Udal bizitza politikaren deskribapena: osoko bilkuraren osaera, udal gobernua, giro politikoa, etab.
- ↘ 8. Parte hartzeko organoaren sustatzaileen iritziz nabarmendu beharreko beste kontu batzuk.



Aurrekoarekin batera, gomendagarria izanen litzateke informazioa biltzea herriko haurrak eta nerabeak nola diren eta zer behar eta interes dituzten jakiteko. Informazio hori bil liteke haur eta nerabeei beraiei galdetuz, baita haiekin harremanetan ari diren helduei ere (irakasleei, udal baliabide eta zerbitzuetako hezitzaileei, adingabeekin lan egiten duten kirol eta kultur elkarteei, familieei...), edo gaiari buruz lehendik egindako azterketetara joz.

Besteak beste, komeni da honako alderdi hauei buruzko informazioa biltzea: denbora zertan ematen duten, haien aisia moduak, IKTak nola erabiltzen dituzten, haien genero rolak, autonomia maila, kezka nagusiak, gai kolektibo edo komunitarioekiko interesa, gatazkak nola kudeatzen dituzten, etab.

## 3.2. DISEINUA

Hurrek eta nerabeek parte hartzeko tokiko organo bat diseinatzeko orduan zer alderdiri erantzun behar zaien biltzen dira atal honetan.

### EGINKIZUNAK

Agian begien bistakoa dela dirudi, baina, hurrek edo nerabeek parte hartzeko organo bat abian paratu nahi badugu, galdera hauei erantzun beharko diegu: egitura hori zertarako bultzatu nahi dugun, zer eginkizun edukiko dituen eta zertaz arduratuko den.

Udalerrri bakoitzak xehetasun handiagoz eta norik bere errealitateari egokiturik zehaztu behar du parte hartzeko organoa zergatik eta zertarako nahi duen; ondoren, zenbait eragilek –UNI-CEFek, besteak beste– eskaintako ideia batzuk bildu ditugu, talde eragile bakoitzean alderdi horiei buruz gogoeta egiteko eta aiseago ezarri ahal izateko:

- ▶ Haurren eta nerabeen tokiko kontseiluak berriazko esparruak dira hurrek udal politikan ordezkaritza eta partaidetza aktiboa izan dezaten. Udalerriko haurren eta tokiko agintarien arteko komunikazio bidetzat balio dute.
- ▶ Aholku organo iraunkor eta egonkorak dira. Organo horiek aldi behin bildu eta antolatzen dira, eta xedetzat, haurren eta nerabeen parte-hartzea antolatzea dute, beren iritzia, premiak eta kezka helarazteko eta tokiko mailan eragiten dieten gaiei buruz hitz egiteko eta ideiak proposatzeko esparru bat izan dezaten.
- ▶ Tokiko gobernuari neurri egokiak proposatzen dizkiote haurren ongizatea eta haien eskubideen garapena tokiko mailan bermatzeko, arreta berezia eskainiz, betiere, herriko haur zaugarrienei.
- ▶ Egiten diren Haurren Planak prestatzen eta haien jarraipena egiten parte hartzen dute, haurren premiak plan horietan islatuta egon daitezten.
- ▶ Parte hartzen duten haurren eta nerabeen artean gaitasunak (gaitasunak, trebetasunak, ezagutzak eta balioak) garatzea sustatzen dute, ariketa praktiko eta esperimentazioaren bitartez, herritar arduratsu izan daitezten (izan ere, honako balio hauek sustatzen dira: parte-hartzea, elkarriketa, lankidetzeta, talde lana, dibertsitatea onartzea, adostasunak lortzeko negoziazioa...).

## OSAERA

Hurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa diseinatzeko orduan, finkatu beharreko kontu nagusietako bat da haren kideak zein izanen diren: haien kopurua, profila eta abarrak.

Ona da beste udalerrri batzuen esperientziei begiratzea, nola funtzionatzen duten ikusteko eta inspirazioa hartzeko, halere, herri bakoitza ezberdina da, eta halakoa ere bada bertako haurren eta nerabeen errealitatea zein parte hartzearen arloko udal ibilbidea. Hala bada, kasu bakoitzean, galdera horren edo beste batzuen erantzunak egokitu behar dira, besteak beste, aurretiko esperientziara edo eskuragarri dauden baliabideetara (giza baliabideak zein baliabide ekonomiko eta teknikoak: ezagutza, esperientzia...).

Maila praktikoan, garrantzitsua da parte hartzeko organoaren osaera pentsatzeko orduan zenbait kontu gogoan edukitzea:

- ▶ 1. Kontseiluak batez ere hurrez eta nerabeez osatuta daude, protagonista horiek izan behar baitira, baina helduak ere badaude. Baina garrantzitsua da adingabeen kopurua helduena baino nabarmen handiagoa izatea beti, organoaren izaerak nortasunik gal ez dezan.
- ▶ 2. Kontseiluen kide kopurua alda daiteke (organo batzuek 10 haur eta nerabe baino gutxiago dituzte, eta beste batzuek 60 ere badituzte) eta horrek ez du zertan zerikusirik izan udalerriko biztanle kopuruarekin. Komeni da udalerrri bakoitzak hautatutako kide kopurua espazio horretaz arduratzeko gaitasunarekin lotuta egotea.
- ▶ 3. Parte hartzeko organoetako kide adingabeen adin bitartea 6 eta 18 urte artekoa izan daiteke. Zenbaitetan, egitura hauetan dituzten haur eta nerabeak 10 eta 12 urte bitartekoak izaten dira, beste batzuetan 9 eta 14 urte bitartekoak edo baliteke bitarte zabala goak ere egotea (8-18 urte).

Esperientzia txikiagoa duten edo organoaz arduratzeko baliabide gutxiago dituzten udalerriei dagokienez, komeni da haren ezarpena denboran emeki egitea, eta hala, hasteko, haur eta nerabe kopuru txikiagorekin lan egitea, edo adin bitarte batekin soilik, eta ondoren adingabe edo adin bitarte gehiago batzen joatea.

- ▶ 4. Hurrek parte hartzeko organoaren osaeran aniztasuna sustatzeko, komeni da udalerrrian dauden ikastetxe, auzo, barruti edo biziguneetako haurren kopuru orekatua egotea, generoen ordezkaritza orekatua bermatzea, edota behar bereziak dituzten, egoera ahulago duten edo herrian dauden beste etnia edo kultura batzuetako haurren ordezkaritza kontuan edukitzea, besteak beste.
- ▶ 5. Hurrek edo nerabeek parte hartzeko organoko kide helduek, lan teknikoak edo babes-tekoak dituzten pertsonak izan ezik, profil politikoa izaten ohi dute. Ohikoa izaten da horietako gehienak gobernu taldeko kideak izatea eta gainerakoak oposizioko zinegotziak izatea.

Parte hartzeko organoko kide diren gobernu taldeko kideen ohiko profilak hauek izaten dira: alkatea, organoaren mende dagoen zinegotzigoaren titularra eta haur eta nerabeekin, parte hartzearekin edo adingabeei zuzendutako udal zerbitzuekin lotutako arloetako zinegotzi batzuk.

Gobernu taldeko kideez gain, komeni da parte hartzeko organoan horren barruan ez dauden eta udalaren osoko bilkuran ordezkariak duten alderdien zinegotzi batzuk ere jasotzea, indar politikoen artean, haur eta nerabeen parte hartzeari dagokionez, adostasun handiagoa laguntze aldera.

## HAREN KIDEAK HAUTATU ETA BERRITZEA

Parte hartzeko organoan arituko diren haur eta nerabeen kopurua eta profila zehaztuta, horiek nola hautatuko diren, haien aniztasuna nola bermatu eta zenbatean behin eta nola berrituko diren erabaki beharko da.

Udalak edo talde eragileak egoki irizitako prozedura erabiliz hautatuko dira haurren ordezkariak. Ohikoena izaten da herriko ikastetxeen bitartez egitea, baina udal baliabideak edo zerbitzuak ere erabiltzen ahal dira (ludotekak, gazte ekipamenduak, udalekuak...) edo haurrek eta nerabeek parte hartzen ohi duten kultur, gazte eta kirol elkarten bitartez. Boluntario aurkezten diren pertsonen artean bozketa edo zozketa ginez hauta daitezke kideak.



Hautaketa edo zozketa egin aurretik, ezarri beharra dago adin talde, sexu, ikastetxe, auzo edo bizigune... bakoitzak organoan zenbat ordezkari edukiko dituen, nahi dugun aniztasuna bermatzearren.

Hautatzeko orduan, ohikoa da ordezko batzuk ere aukeratzea; parte hartzeko organotik baja ematen duten haur eta nerabeen tokia hartu beharko dute ordezko horiek.

Hautatu ondoren, ez dugu ahanzi behar ordezkari hautatuek gurasoen edo tutoreen baimena eduki behar dutela haur eta nerabeen tokiko kontseiluan parte hartzeko. Baimen horrekin batera irudi eskubideen baimena ere egon behar da, eginiko lanaren berri ematen duten produktu bisualak ondoren erabili ahal izateko.

Kontseiluko kideak, kasuaren arabera, urtero, bi urtean behin edo lau urtean behin berritzen ohi dira. Bi urtean behin berritzen dituztenean, udalerrri anitzek kide guztiak aldi berean ez berritzea arautzen dute; hori horrela, lehen urtean kideen erdiak berritzen dituzte, eta beste erdiak hurrengoan, eta era horretan, parte hartzeko organoko kideetako batzuek lan dinamika ezagutuko dute beti, eta ez dira, hortaz, hutsetik, hasi beharko.

## FUNTZIONAMENDUA

Parte hartzeko organoak zer kide izanen dituen eta horiek nola hautatuko diren zehaztuta, zer eginkizun izanen duen erabaki behar da. Horretarako, honako galdera hauei erantzutea lagungarri izanen zaigu deus garrantzitsurik ahanz ez dezagun:

- ▶ Nola antolatzen da?
- ▶ Zenbatean behin biltzen da eta zertarako?
- ▶ Nola erabakitzen da saioen edukia?
- ▶ Nork laguntzen ditu?
- ▶ Nola bermatzen da ordezkarien eta ordezkatuaren arteko lotura?

Kontu horiei dagokienez, lehenik eta behin, ohikoena izaten da haur eta nerabeen kontseiluetan lan egiteko bi esparru bereizi finkatzea.

Horietatik lehenari Osoko Bilkura esaten zaio, eta helduek zein haur eta nerabeek hartzen dute parte hor. Osoko Bilkura horiek araudian ezarritako maiztasunez biltzen ohi dira (urtean bitan edo hirutan eskuarki), eta bertan udal arduradunek jorratzea nahiko lituzketen udal agendako gaiak proposatzen dizkiete adingabeei, edo landutako gaiak buruzko iritziak edo proposamenak helarazten dizkiete adingabeek ordezkari politikoei.

Beste esparruari batzordea edo lantaldea esaten zaio, eta hurrez osatua baino ez da egoten normalean. Adingabeekiko harremanetan eta parte hartzeko teknika eta metodologietan eskarmentua duten pertsonak lagundu edo dinamizatzen ohi dituzte, eta osoko bilkurak baino maiztasun handiagoz egiten ohi dira. Batzorde horietan gai zehatzak jorratzen ohi dituzte (hezkuntza, hirigintza, ingurumena, azpiegiturak...), eta horiei buruz zer ideia dituzten adierazten dute adingabeek.

Atal horretan adierazi beharreko alderdien artean dago parte hartzeko organoaren eta osoko bilkuren agenda nola finkatuko den. Ohikoena izaten da gai zerrenda prestatzea kideek –arduradun politikoek zein haur eta nerabeeek– proposatutako edukiak kontuan hartuz.

Ildo horretatik, komeni da parte hartzeko mekanismoek organoan dauden haur eta nerabeei ez mugatzea, eta herriko beste adingabe batzuei ere zabaltzea parte hartzeko aukera (eskola agendaren barruko jarduera osagarriak, postontzi fisikoak edo birtualak eskariak jasotzeko, jarduerak zabaltzeko ekintzak...).

Kontseiluak erabakiak nola hartuko dituen ere ezarri behar da (adostasunez, gehiengo kalifikatuz, gehiengo soilaz...), eta horiek eragindako udal arlo edo zerbitzuei nola jakinaraziko zaizkien.

### 3.3. ABIAN JARTZEA

#### LAN PLAN BAT PRESTATZEA

Haurrek eta nerabeeek parte hartzeko organoa nola izatea nahi dugun diseinatu ondoren, lan plan bat prestatu beharko dugu, hura gauzatzeko emanen ditugun urratsak zehatz ditzagun.

Lan plana proiektua gauzatzeko behar diren ekintzak planifikatzeko tresna bat da. Organoa ezartzeko garatu beharreko ekintzak planifikatzeko balio izateaz gain, kudeaketa tresna gisa ere balio du, helburuak lortzeko behar diren ekintza guztiak nola antolatu, orientatu eta ezarriko diren finkatzen baitu (bertan kronograma ezartzen da, arduradunak izendatzen dira, erabili beharreko baliabideak, etab.).

Lan planak ordena logikoa du edo eduki behar du; izan ere, ekintza guztiak elkarren ondorio dira eta/edo elkarri lotuta daude. Halaber, proiektu baten gauzapanari lotutako informazio ordenatzen badugu, hori komunikazio tresna gisa baliagarri izaten ahal zaigu.

Hona hemen lan plan bat egiteko jarraitzen ahal ditugun urrats batzuk<sup>1</sup>:

- ▶ 1. Jarduteko eremuak, kategoriak edo jardun ildoak ezartzea. Haurrek eta nerabeeek parte hartzeko organoa abian paratzeko funtsezko ekintzak izenburuko atalean proposatutakoak edo beste batzuk izan daitezke. Garrantzitsuena horiek logika bati erantzutea da, eta lana eginen dutenendako baliagarriak izatea.
- ▶ 2. Eremu edo kategoria bakoitzean garatu beharreko ekintza/zeregin nagusiak identifikatzea.
- ▶ 3. Ekintzak egiteko zer epe dauden ezartzea.
- ▶ 4. Ekintza bakoitzaren arduradunak finkatzea.
- ▶ 5. Ekintza bakoitza gauzatzeko behar diren baliabideak finkatzea.
- ▶ 6. Esku hartzen duten pertsona guztiei lan plana jakinaraztea, dauden zalantzak argitzea, barneko komunikazio estrategia ezartzea...

- ▶ 7. Sor litezkeen oztopoak eta zailtasunak aztertzea eta ordezeko aukerak pentsatzea.
- ▶ 8. Aurreikusitako ekintzen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea eta proiektuaren bilakaera ikustea.

## ABIAN PARATZEKO FUNTSEZKO EKINTZAK

Udalerrri eta talde eragile bakoitza arduratuko da bere lan plana prestatzeaz, eta lan horiek tokiko egoerari erantzun behar die; hala eta guztiz ere, aurreko atalean esandakoaren alde-tik, haurrek edo nerabeek parte hartzeko organoa abian paratzeko izaten ahal diren jardun ildo eta funtsezko ekintza batzuk jaso ditugu atal honetan:

- ▶ Parte hartzeko organoa bultzatu eta dinamizatzeko arduradunak koordinatzeko egitura osatzea.
  - Bultzatu, koordinatu eta jarraipena egiteko organoko kideak identifikatzea.
  - Kideen eginkizunak eta zereginak ezartzea.
  - Bileren edukiak, maiztasuna... ezartzea.
  - Jarraipena eta ebaluazioa diseinatzea.
- ▶ Haurrek edo nerabeek parte hartzeko organoa dinamizatzeko formula zehaztea
  - Eginkizunak, zereginak, arduraldia...finkatzea.
  - Haren dinamizazioa kontratatzea edo hura esleitzea Udala jada lotuta dauden langileei.
- ▶ Komunikazioa eta zabalpena (jarraitutasunez)
  - Ekimenaren berri ematea abian paratu baino lehenago.
  - Tokiko eragileekin aliantzak egitea eta indartzea.
  - Adingabeek berdinkideekin komunikatzeko zereginetan parte har dezaten lortzea.
  - Herritarrei egindako lanaren eta erdietsitako emaitzen berri ematea.
- ▶ Eragileekiko harremana
  - Proiektuaren aliatu edo laguntzaile izaten ahal diren eragileak zehaztea.
  - Horiekin harremanetan paratzea, proiektuaren berri emateko eta harekin inplikatu edo laguntzea lortzeko.
- ▶ Aurreikusitako kontseilua eta lantaldeak eratzea
  - Ezarritako bidea erabiliz (hauteskundeak, zozketa, deialdi irekia...).
  - Parte hartzen duten haurren eta nerabeen familiekin harremanetan paratzea eta haien baimenak erdiestea.



- ▶ Parte hartzeko organoaren lana hastea
  - Hasierako lan edukiak zehaztea.

## PROIEKTUA HERRITARREI ZABALTZEA

Parte hartzeko prozesu guztietan bezala, ezinbestekoa da hari buruz herritarrei informazioa ematearekin lotutako guztia ongi zaintzea. Kasu honetan, haren informazioa komunitateari oro har emateaz gain, bereziki nabarmendu behar da haur eta nerabeek ongi ezagutu behar dituztela haurren edo nerabeen parte-hartzeko organoari lotutako alderdi guztiak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea organoari eta haren jarduerari buruzko dibulgazioak haren etapa guztiak hartu behar dituela barnean: aurretiko fasean (kontseiluaren helburuak edo abian paratzeko urratsak jakinaraztea), funtzionatu bitartean (izaten diren aurrerapenak, mugarriak edo data bereziak jakinaraztea, baita nola funtzionatzen duen ere...) eta jarduera amaitu ondoren (parte hartzen duten haur eta nerabeei zein gainerakoei landutako gaiiei buruzko informazioa, egindako proposamenak edo hartutako erabakiak jakinarazi behar zai-zkie).

Komeni da informazio hori emateaz, edo lan hori laguntzeaz, ardurak daitezela udalean erantzukizun karguak dituzten pertsonak, eta horiekin batera, baita eginiko prozesuaren eta lanaren ezagutza tekniko handiagoa dutenak ere.





## 3.4. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

### EBALUAZIO PROZESU BATEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Lan prozesu orotan jarraipena eta ebaluazioa ezinbestekoak dira, baina are funtsezkoagoak izaten dira askotariko eragileek esku hartzen duten parte hartzeko proiektu berritzaile baten kasuan.

Hurrek eta nerabeek parte hartzeko organoaren ebaluazioa egoki egin dadin, komeni da honako baldintza hauek betetzea:

- ▶ Etengabekoa eta programatua izan behar da. Eta informazioa bildu, aztertu eta interpretatzeko prozedura sistematikoetan oinarrituta egon behar da.
- ▶ Parte hartzeko organoaren jarduerari buruz hausnartzea izan behar du xede, eta, aurretik zer egin den aztertuta, oraingo ekintzak egokitzeko eta etorkizunekoak hobetzeko erabakiak hartzea.
- ▶ Informazio adierazgarria eta garrantzitsua lortzea bilatu behar du.
- ▶ Parte hartzeko prozesu bat denez, interesaturik dauden eragile guztiak hartu behar ditu barnean.

Beste esperientzia batzuen kasuan bezala, ebaluazioak parte hartzeko organoa diseinatzeko, abian paratzeko eta funtzionatzeko prozesua ez ezik, horren jarduerari esker erdietsitako emaitzak ere hartzen ahal ditu, eta hartu behar ditu, barnean (neurtzea haur eta nerabeen parte hartzea benetan hartu den kontuan, parte hartzearen ondorioz haur eta nerabeek zein helduek aldaketarik izan zuten...).

Beste prozesu batzuetan bezala, parte hartzeko organoaren ebaluazioa kanpokoa izan daiteke, hura diseinatu, abian paratu eta dinamizatzearekin zerikusirik ez duten eragileek egina; barnekoa, programaren arduradunek beraiek eta/edo hartzaileek egina; edo mistoa, biek ala biek parte hartuta.

### EBALUAZIOAN HAURRAK ETA NERABEAK SARTZEKO ZENBAIT ZAILTASUN

Haur eta nerabeekin lan egiten dugun guztietan bezala, hurrek edo nerabeek parte hartzeko organo bat diseinatu eta abian paratzeko prozesua ebaluatzeko fasean honako alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan:

- ▶ Komunikatzeko erabiltzen ditugun hizkuntza eta estiloak egokitu beharko ditugu, hurbilago eta ulergarriagoak izan daitezten.
- ▶ Erabili beharreko ebaluazio metodologia eta teknikak egokitu behar dira, erakargarriagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten.
- ▶ Zaila da hurrek eta nerabeek prozesuaren eduki edo zati batzuk baloratzea.

Zailtasun horiek direla eta, adierazle zehatz eta fidagarriez gain, hurrekin lan egiteko ego-kiak diren teknikak diseinatu eta erabili behar dira. Halaber, horiek aplikatzen ditugunean kontu berezia izan beharko dugu. Horretarako, komeni da diziplina anitzeko lantaldeak edukitzea, eta hurren parte hartzea, ebaluazioan, ikasteko elementu gisa planteatzea, kontrolatzeko baino gehiago.

## JARRAIPEN ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK

Hurren eta nerabeen artean, jarraipen eta ebaluaziorako fase honetan, besteak beste, honako tresna hauek izan daitezke informazioa biltzeko baliagarri:

- ▶ Galdetegiak edo inkestak. Horien bitartez ezaupideak, jarrerak edo jardunbideak neurtzen ahal dira.
- ▶ Banakako elkarrizketak.
- ▶ Taldeko elkarrizketak edo eztabaida taldeak.



- ▶ Behaketa.
- ▶ Datuak bildu eta aztertzekeo tresna dinamikoak eta parte hartzekeoak: irudikapen grafi-koak, taulak, puntuazioak, sailkapenak, marrazkiak, antzezlanak eta abarrak.
- ▶ Aldaketa adierazgarrienaren kontakizunak eta ahozko lekukotzak.

## NEURTZEKO ZENBAIT ADIERAZLE

Proiektu baten lan planaren zein helburuen betetze maila neurtzeko tresna nagusiak dira adierazleak. Lortutako aldaketak edo emaitzak baloratzea errazten dute, eta egoerak denbo-  
ran zehar konparatzeko aukera ematen dute.

Eginkizuna betetzeko, adierazleak behagarriak izan behar dira, hau da, erreferentzia egiten dieten gertaerei buruzko informazioa eduki behar dugu; zehatzak, pertsona guztiek gauza bera ulertu behar dute horiek irakurtzen dituztenean, norberaren interpretazioaren mende gelditzen diren balio judizioetarako tarterik gabe; adierazgarriak, neurtu nahi dugun kontzeptuaren funtsa egoki islatu behar dute; fidagarriak, emaitza bera eman behar dute, neurketa egiten duena egiten duela, eta egingarriak, eskura dauden baliabide eta gaitasunak erabiliz neurtzeko modukoak.

Hurrek udalerrian zer parte hartze maila duten neurtzeko, honako adierazle hauek erabil ditzakegu, besteak beste:

- ▶ 1. Haurren parte-hartzea berariaz aipatzen duten edo erabakiei buruz informazioa jasotzeko, iritzia emateko, entzuna izateko edo eragiteko eskubidea berariaz aipatzen duten dekretuak, arauak edo erregelamenduak egotea.
- ▶ 2. Haurren parte-hartzearen arloko prestakuntza proposamenak egotea administrazioko langileendako eta gurasoendako.
- ▶ 3. Esperientzia eta prestakuntza –egiaztatua edo aribidean– duten giza baliabideak, haurren eta nerabeen parte-hartzeko eskubidea sustatzeko eta haren erabilera gauzatzeko.
- ▶ 4. Haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko edo gauzatzeko baliabide ekonomikoak.
- ▶ 5. Hurrek eta nerabeek parte hartzeko eskubidea erabiltzeko bereziki aurreikusitako estrategiak edo mekanismoak: elkarrizketak, entzunaldiak, lantaldeak, kontseiluak, biltzarrak, iradokizunetarako buzoia, etab.
- ▶ 6. Estrategietan edo parte hartzeko mekanismoetan parte hartzen duten haurren eta nerabeen kopurua.
- ▶ 7. Parte hartzeko mekanismoetan zer maiztasunez aurreikusita dagoen haur eta nerabeei informazioa ematea, horiek iritzia ematea, entzun dakien edo erabakietan eragitea.
- ▶ 8. Hurrei eta nerabeei informatzeko baliabideak egotea (idatziak, ahozkoak, ikus-entzuzkoak edo birtualak).
- ▶ 9. Hurrei eta nerabeei informatzeko erabilitako materiala egokitzea.

- ▶ 10. Errespetuzko giroa egotea, iritzia emateko, entzuna izateko eta erabakietan era aske eta ireki batean eragiteko eskubidea erabiltzeko.
- ▶ 11. Tokiko erakundeetan egiturazko aldaketak egotea haurren eta nerabeen parte hartze-ko prozesuaren ondorioz.
- ▶ 12. Komunitatean aldaketak egotea haurren eta nerabeen parte hartze-ko prozesuaren ondorioz.
- ▶ 13. Banakoan mailan aldaketak egotea haurren eta nerabeen parte-hartze-ko prozesuaren ondorioz.



## ESPERIENTZIA INTERESGARRIAK NFK-N

## 4

### 4.1. HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO TOKIKO ORGANOAK

Hurrek eta nerabeek parte hartzeko ondoren azaldutako tokiko organoak Nafarroako Gobernuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak Castejón, Cintruénigoko, Mendabiako, Eguesibarko eta Zizur Nagusiko Udalekin burututako esperientzia pilotuaren emaitza dira.

Organo horiek abian paratzea eta garatzea tokiko udalbatza berrien esku egonen da, zeinek lan horretan inplikatzeko konpromisoa agertu duten.

#### HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEKO KONTSEILUA \_ CASTEJÓN

##### △ ENTITATE SUSTATZAILEA

CASTEJÓNGO UDALA

##### △ HASTEKO EDO ABIAN PARATZEKO URTEA

2019

##### △ HELBURUA ETA EGINKIZUNAK

- ↳ Udalerriko haurren eta nerabeen beharrei erantzutea
- ↳ Populazio sektore horren eta erakundeen ordezkartzaren arteko lotura egitea
- ↳ Herritar aktiboak izateko heztea, eta haur eta nerabeek ingurune hurbilaren garapenari ekarpen arduratsua egin diezaioten sustatzea.
- ↳ Aholku organo bat da, eta tokiko agintariek kontuan eduki beharko dute haur eta nerabeendako politikak diseinatzeko orduan.

##### △ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↳ Kontseiluak 8 kide izanen ditu gutxienez eta 14 gehienez
- ↳ Bi talde handitan lan egiten dute; batetik, 8-11 urte bitartekoak daude, eta bestetik, 12-14 urte bitartekoak.
- ↳ Nesken eta mutilen arteko parekotasuna lehenesten da eta, gehienez, bi ordezkari daude adin bakoitzeko.

##### △ LAN DINAMIKA

- ↳ Animatezaile soziokultural batek dinamizatzen du kontseilua; hala bada, saioak prestatu, dinamizatu eta koordinatzen ditu, eta ordezkari politikoezikiko komunikazioa errazten du.

- ↘ Kontseilua berritza: Urtero (8 urtekoei dagokienez) eta bi urtean behin (gainerako adinei dagokienez).
- ↘ Kontseilua hilean behin bildu ohi da gutxienez, eta ezohiko bilera ere egiten du, alka-teak edo kideen erdiek gutxienez horrela eskatzen badute.

#### △ JORRATUTAKO GAIAK

- ↘ Saioen edukia honako hauek proposatuta erabakiko da:
  - Udalbatzak
  - Kontseiluak berak
  - Organoko talde eragileak

#### △ GAKO ETA ELEMENTU NABARMENGARRIAK

- ↘ Garrantzitsua da herriko ikastetxeak inplikatzeko, hala Lehen Hezkuntzan nola DBHn.
- ↘ Talde eragileko kideek proiektuan erabateko inplikazioa edukitzea.
- ↘ Inplikazio politikoa.

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

- ↘ [www.castejon.com](http://www.castejon.com)
- ↘ [www.castejon.com/la-consejera-ollo-recibe-a-seis-municipios-participantes-en-un-programa-piloto-de-participacion-infantil-y-adolescente/](http://www.castejon.com/la-consejera-ollo-recibe-a-seis-municipios-participantes-en-un-programa-piloto-de-participacion-infantil-y-adolescente/)



## HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEKO KONTSEILU IRAUNKORRA \_ CINTRUÉNIGO

### △ ENTITATE SUSTATZAILEA

CINTRUÉNIGOKO UDALA

### △ HASTEKO EDO ABIAN PARATZEKO URTEA

2019

### △ HELBURUA ETA EGINKIZUNAK

- ↘ Aholku organo iraunkor eta egonkorra. Aldian behin bildu eta antolatzen da, eta xedetzat, haurren eta nerabeen parte-hartzea antolatzea du, tokiko mailan eragiten dieten gaiei buruz hitz egiteko, beren ideiak helarazteko eta erabakiak hartzeko esparru bat izan dezaten.
- ↘ Cintruénigoko haurren eta tokiko agintarien arteko parte-hartze eta komunikazio organo eta bidetzat balio izatea.
- ↘ Neurri egokiak proposatzea Cintruénigoko haurren eta nerabeen ongizatea eta eskubi-deen garapena bermatzeko.
- ↘ Eragiten dieten gaiekin lotutako era guztietako sentsibilizazio jardueren sustapenean parte hartzea.
- ↘ Abian paratzen diren haur eta nerabeen gaineko politiketan parte hartzea.

### △ LINEAS DE TRABAJO

- ↘ Hiriko bizitza hobetzea: haur eta nerabeentzako herri atseginagoa sortzea proiektuak egiteko orduan haien ideiak eta iradokizunak gehituz.
- ↘ Herritar arduratsuak eta balio demokratikoetan oinarrituak eraikitzea: haurrek bizikidetzarekin eta helduen jarrerekin zerikusia duten gaietan haurrek parte hartzea (haurrak eta nerabeek jokabide zibikoak eskatzen dizkiete helduei).

### △ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↘ Alkatetza, zinegotziak, haurrak eta nerabeak
- ↘ 10 eta 14 urte bitarteko 16 parte-hartzaile. Lehen Hezkuntzako 8 kide (5. eta 6. mailak) eta Bigarren Hezkuntzako 8 kide (1. eta 2. mailak).
- ↘ Parekotasunaren printzipioa beteko da (neska adina mutil). Ahal den guztietan premia bereziak dituzten, zaugarritasun handiagoa duten edo beste nazionalitate batzuetakoak diren haurrak egotea hartuko da kontuan.

### △ LAN DINAMIKA

- ↘ Osoko Bilkuran (Kontseiluko kide guztiez osatuta) eta Batzordeetan (haurrez osatutako lantaldeak) antolatzen da.



- ↘ Dinamizatzaile batek (teknikaria) dinamizatuko du Kontseilua.
- ↘ Urtean 2 osoko bilkura egingen dira, eta batzordeak, hilean behin.
- ↘ Kontseilua berritzea: Urtero, edo bajak daudenean. Erdiek beste urtebete gehiagoz jarraituko dute, eta horrela hartutako lan dinamika ez gelditzea lortzen da.

#### △ JORRATUTAKO GAIAK

Saioen edukia honako hauek proposatuta finkatuko da:

- ↘ Alkatetzak edo zinegotziak.
- ↘ Kontseiluak.
- ↘ Haur eta nerabeekin lan egiten duten erakundeek eta/edo elkarteek.
- ↘ Hurrek eta nerabeek.





- ↳ Talde eragileak.
- ↳ Kontseilura iritsitako eskari, iradokizun, kexa eta abarren bitartez.

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

[www.cintruenigo.com](http://www.cintruenigo.com)

### HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZEKO KONTSEILUA \_ MENDABIA

#### △ ENTITATE SUSTATZAILEA

MENDABIAKO UDALA

#### △ HASTEKO EDO ABIAN PARATZEKO URTEA

2019

#### △ HELBURUA ETA EGINKIZUNAK

- ↳ Parte hartzeko eta kontsultarako organo bat da, Udalak haur eta nerabeen parte-hartze, sustapen, arreta eta babesaren arloan haren mende paratu nahi dituen gaiei dagokienez.
- ↳ Haurren eta udalbatzaren arteko parte-hartze eta komunikazio organo eta bidetzat balio izatea.
- ↳ Hurrek Kontseiluko ordezkarien bitartez helarazitako eskariak, proposamenak eta kexak jaso eta entzutea.
- ↳ Mendabiako haurren ongizatea lortzeko egoki iritzitako neurriak udalbatzari proposatzea.
- ↳ Aldian behin eskuratzea Udalak arlo honetan egiten dituen jardueren buruzko informazioa.
- ↳ Haurren eskubideei buruzko konbentzioan bildutako haurren eskubideak egikari daitezen sustatzea.

#### △ LAN HILDOAK

- ↳ Aisia, astialdia eta hirigintza

#### △ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↳ Kontseiluburua: Alkatea
- ↳ Kontseiluko kideak: 12 kide 11-13 urte bitarteko haurren aldetik (adin tarte bakoitzeko 4); Udalaren 2 ordezkari, zinegotziek hautatuta, talde eragilearen 2 ordezkari.

#### △ LAN DINAMIKA

- ↳ Gutxienez programaren teknikari batek dinamizatuko du kontseilua.

- ↘ Hilean behin bilduko da ikastetxe batean, eskola ordutegitik kanpo.
- ↘ Kontseilua berritzea: Urtero 11 urtekoak berrituko dira, eta 13 urtekoek utziko dute. Udalaren ordezkariak legealdiko 4 urteetan egonen dira.

#### △ JORRATUTAKO GAIAK

- ↘ Hurrek parte hartzeko organoa talde eragileko teknikariek eta dagozkien zinegotzigoek (Aisia, Astialdia eta Hirigintza) emandako prestakuntza eta informazioaren bitartez elikatuko da.
- ↘ Kontseiluak erabakiko du saioen gai-zerrenda, baita agenda eta egutegia ere.

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

- ↘ [www.mendavia.es](http://www.mendavia.es)
- ↘ [www.mendavia.es/i-plan-de-infancia-del-ayuntamiento-de-mendavia/](http://www.mendavia.es/i-plan-de-infancia-del-ayuntamiento-de-mendavia/)



## LORE TXIKI: HAURREK PARTE HARTZEKO ORGANOA \_ EGUESIBAR

### △ ENTITATE SUSTATZAILEA EGUESIBARKO UDALA

### △ HASTEKO EDO ABIAN PARATZEKO URTEA 2019

### △ HELBURUA ETA EGINKIZUNAK

- ↳ Lore txiki Eguesibarrek haurren partaidetzarako ezarri nahi duen organoa da, eta izen hori eman zaio helduen parte-hartzeari emaniko balio bera eman nahian (Lore batez irudikatzen da azken hori).
- ↳ Eguesibarko hurrek gogoeta egin, eztabaidatu eta beren iritziak adieraztea.
- ↳ Biztanleriaren sektore horrek gure udalerriko bizitza hobetzeko dituzten ikuspegia eta proposamenak ematea.
- ↳ Adin goiztiarretatik herritar aktiboak eraikitzen laguntzea.
- ↳ Parte hartzea genero ikuspegiarekin erraztea..

### △ LAN HILDOAK

Bi dira:

- ↳ Udal agendatik eta Udaletik jorratu beharreko gaietatik sortutako bat.
- ↳ Hurrek eginiko proposamenetatik beraietatik sortutako beste bat, udalerrian aplikatu ahal izateko modukoa.

### △ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↳ Lehen urtea: Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrak sartuko dira (kideen erdiak).
- ↳ Bigarren urtea: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrak sartuko dira.
- ↳ Proposamena finkatutakoan, beste adin tarte batzuk sartzeko aukera aztertuko da. Udalak bezala, 21 kide ukanen ditu. Lehen urtean kideen erdiak bakarrik egonen dira.
- ↳ Askotariko profilak: sexuaren araberako ordezkaritza paritarioa, lurralde aniztasuna (udalerriko bi ikastetxeetako ikasleak eta eskualdeko zentroko ikasleak), hizkuntza aniztasuna, premia bereziak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak barnean hartzea...

### △ LAN DINAMIKA

- ↳ 3 lan maila bereizten dira:
  - Osoko Bilkura: Lore Txikik, alkatetzak eta zinegotzigoek osatuta (urtean bitan).
  - Haurren lorea: hurrek parte hartzeko organoa (astean behin). Bi batzordetan antolatuta ahal izanen da (petaloa).

- Foro irekia: haurren komunitate osoari irekitako parte hartze esparrua.
- ↳ Lore Txikik kideen erdiak berrituko ditu urtero, proiektuaren jarraitutasuna bermatu ahal izatearren.
- ↳ Talde eragileak, lantalde koordinatzaileak eta lantalde dinamizatzaileek lagunduko diote proiektuari (azken lantaldea funtsezkoa da proiektuarendako, eginkizun erabakigarria baitu Lore Txikiren eta ordezkari politikoen arteko harreman eta komunikazio prozesua errazteko).

#### △ GAKO ETA ELEMENTU NABARMENGARRIAK

Funtsezko deritzogu honako hauen arteko aliantza sare sendoari: Eguesibarko ikastetxeak, gurasoen elkarteak eta parte hartze egitura (lorea), aldi berean herritarrak, teknikariak eta politikariak barnean hartuta.

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

<https://www.valledeegues.com/eu/gardentasuna-eta-herritarren-parte-hartzea/herritarren-parte-hartzea/erabakiak-hartzea/prozesu-parte-hartzaileak/>



HAURREN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (HPHOI)  
NERABEEN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (NPHOI)  
URRENERABEEN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (APHOI)  
ZIZUR NAGUSIA

△ ENTITATE SUSTATZAILEA

ZIZUR NAGUSIKO UDALA

△ HASTEKO EDO ABIAN PARATZEKO URTEA

1994: HPHOI | 2018: NPHOI | 2019: APHOI

△ FINALIDAD

- ↘ Herritar aktiboak sor daitezen laguntzea eta garapen demokratikoa sustatzea.
- ↘ Haurren /neraberen - gazteen interesak Udalaren aurrean ordezkatzeara

HAURREN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (HPHOI)

△ EGINKIZUNAK

- ↘ Udalerriko haurren kalitatea hobetzeko neurriak proposatzea.
- ↘ Udalaren aurrekontuei eta haur ondarearen kudeaketari buruzko informazioa jasotzea, ematea eta horren gaineko iritzia ematea, bai eta hurrei eragiten dieten guztiari dagokionez.

△ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↘ Lehen Hezkuntzako 6. mailako 17 haur; udalbatzaren kide kopuru bera, alegia.
- ↘ Ordezkaritza proportzionatua: neska/mutilak, gaztelania/euskara.

△ LAN DINAMIKA

- ↘ Parte-hartzaileak ikastetxeekin elkarlanean hautatzen dira udalerriko Jai Txikietan, udalbatzak ere parte hartuta.
- ↘ Urtean behin berritzen dira haren kideak.
- ↘ Lana batzuetan taldekoa da eta beste batzuetan batzordetan (5) lan egiten da, udal alorren arabera. Ikasturtearen amaieran Haurren Osoko Bilkura egiten da, eta Udalbatzak ere parte hartzen du horretan.
- ↘ Astean behin biltzen da.
- ↘ Zizur Nagusiko Udaleko Haur eta Gazteen Prebentzio Programako hezkuntza taldeak laguntzen du organoa, eta bi gizarte-hezitzailek dinamizatzen dute.

## NERABEEN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (NPHOI)

---

### △ EGINKIZUNAK

- ↳ Udalerriko nerabe eta gazteen kalitatea hobetzeko neurriak proposatzea.
- ↳ Udalaren aurrekontuei eta gazte ondarearen kudeaketari buruzko informazioa jasotzea, ematea eta horren gaineko iritzia ematea, bai eta gazteei eragiten dieten guztiari dagokionez.

### △ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↳ Jakin-nahia duten Zizur Nagusiko 20 gazte gehienez. Taldea handiagoa bada, batzorde bat egiten da interes gaien arabera.

### △ LAN DINAMIKA

- ↳ Ez dira aukeratzen, parte hartzea borondatezkoa da.
- ↳ Hamabostean behingo bilerak, gazteen lokalean, arratsaldean.
- ↳ Zizur Nagusiko Udaleko Haur eta Gazteen Prebentzio Programako hezkuntza taldeak laguntzen du organoa, eta bi gizarte-hezitzailek dinamizatzen dute.

### △ JORRATUTAKO GAIAK

Saioen edukia honako hauek proposatuta finkatuko da:

- ↳ NPHOIk.
- ↳ Udalbatzak edo zinegotzigoek, hala dagokionean.

## AURRENERABEEN PARTE-HARTZEKO ORGANO IRAUNKORRA (APHOI)

---

### △ EGINKIZUNAK

- ↳ Udalerriko haurren kalitatea hobetzeko neurriak proposatzea.
- ↳ Udalaren aurrekontuei eta haur ondarearen kudeaketari buruzko informazioa jasotzea, ematea eta horren gaineko iritzia ematea, bai eta haurrei eragiten dieten guztiari dagokionez.

### △ PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA ETA PROFILA

- ↳ DBHko 1. mailako 10 haur; haurrok HPHOI taldearen ordezkari izan ziren eta garatzen duten lanari jarraitutasuna eman nahi diote. Taldean kide berriak sartzen ahal dira. Irekita dago.

### △ LAN DINAMIKA

- ↳ Ez dira aukeratzen, parte hartzea borondatezkoa da.
- ↳ Astean behingo bilerak, gazteen lokalean, arratsaldean.
- ↳ Zizur Nagusiko Udaleko Haur eta Gazteen Prebentzio Programako hezkuntza taldeak laguntzen du organoa, eta bi gizarte-hezitzailek dinamizatzen dute.

### △ JORRATUTAKO GAIAK

Saioen edukia honako hauek proposatuta finkatuko da:

- ↘ APHOIk.
- ↘ Udalbatzak edo zinegotzigoek, hala dagokionean.



### △ GAKO ETA ELEMENTU NABARMENGARRIAK

- ↘ Urtero, Aste Santuko oporren aurretik, HPHOIk sentsibilizatzeko jai bat antolatzen du Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin (CORPOPRIX izenekoa), parte hartzeko prozesuan sartzeko aukera izan dezaten.
- ↘ Arras garrantzitsua da familiak inplikatzeari.
- ↘ Saioetan erreferentziako hezitzaileak egotea, horiek kudeatu, prestatu, diseinatu, ebaluatzeko..., eta HPHOIko familiekin etengabeko harremanetan.
- ↘ Astialdiko aurremonitoreen ikastaro bat eskaintzen da urtean behin. Ikastaro horretan gazteen parte hartzearen oinarriko alderdiak lantzen dira; 14 eta 17 urte bitartekoena da.
- ↘ HPHOIko kide izan diren haurrei Prebentzio Programaren laguntza aurrerantzean izateko aukera eskaini ahal izatea, eta era horretan, haien adinaren eta beharren arabera esparrua sortzea. Badute jada ibilbide eta eskarmentua, eta horrek haren funtzionamendua eta antolaketa errazten ditu.
- ↘ Haien ideiak eta proiektuak babestea, eta ez bilatzea guren buru izatea.

### △ INFORMAZIO GEHIAGO

Zizur Nagusiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua: 948 182 663

## 4.2. HAURREN ETA NERABEEN BESTE PARTE-HARTZE ESPERIENTZIA BATZUK

### SANDUZELAIKO UMETXEA ELKARTEA (SANDUZELAI AUZOA) \_ IRUÑA

#### △ UDALERRIAREN IZENA

IRUÑA

#### △ ENTITATE SUSTATZAILEA

Sandubitxiak proiektua, Iruñeko Sanduzelai auzoan hurren eta nerabeen protagonismoa garatzeko (Sanduzelaiko Umetxea elkarte).

#### △ HASIERA URTEA

2016

#### △ DESKRIBAPEN LABURRA

11 eta 15 urte bitarteko 26 haur eta nerabeei gizarte eta hezkuntzako laguntza ematea, auzoan ekintza komunitarioko diagnostikoak eta proiektuak egin ditzaten, bai eta auzoko hurren eta gazteen sektore guztiak beren eskubideen inguruan mobilizatzeko.

Sanduzelai Umetxea elkartearen eta Iruñeko Udalaren Prebentzio Ekintza Komunitarioko Planaren barruan da ekimen hau.

#### △ HELBURUA

- ↘ Sanduzelaiko hurrek auzoari buruz zer iritzi eta irudikapen sinboliko dituzten ezagutzea.
- ↘ Auzoko hurren kezka iturri diren gai nagusiak ezagutzea.
- ↘ Hurrek hiri esparrua nola erabiltzen duten ezagutzea, eta auzoko gune seguruak eta hala ez direnak hautematea.
- ↘ Hurrek eta nerabeak protagonistatzat hartuta, ikerketa metodologia bat eraikitzea

#### △ ANTOLAKETA ETA EGITEN DIREN EKINTZA ZEHATZAK

11 eta 15 urte bitarteko 26 boluntarioko talde eragile bat sortzea (Sandubitxiak da taldearen izena), bi teknikari helduk gizarte eta hezkuntzako laguntza ematea.

Ikerketaz eta landa lana egiteaz arduratzen den talde eragilearekin 40 saio egitea (astean bi ordu) auzoko gainerako hurrekin.

#### △ TALDE ERAGILEAREN EKINTZAK

- ↘ Auzoko hurren kezka nagusiak planteatzea.



- ↘ Ikertzen ikastea.
- ↘ Ikerketa planifikatzea.
- ↘ Landa lana.
- ↘ Informazioa biltzea eta aztertzea.
- ↘ Proposamenak egitea

#### △ EKINTZAK GAINERAKO HAURREKIN

- ↘ Inkestak auzotik kanpo ikasten duten pertsonei (6-12 urte).
- ↘ Lantegiak auzoko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan (6-12 urte).
- ↘ Lantegiak auzoko nerabeekin (12-17 urte).
- ↘ Datuak bildu eta aztertzea, eta auzoari jendaurreko ekitaldi baten bidez itzultzea

Auzoko haurren eta nerabeen egoerari buruzko diagnostikoa egin ondoren, 2017-2018 ikas-turtean bost proiektu paratu dituzte abian:

- ↘ Proiektu bat auzoko meskitarekin, komunitateko haurrek hura ezagut dezaten, eta hura ezagutzea, mesfidantza ezagutzaren bidez borrokatzeko.



- ↘ Baterako jarduerak San Jorge ikastetxearen (gaztelania) eta Sanduzelai Ikastetxe Publikoaren (euskara) artean, bi ereduak hurrek elkarrekin parte hartzeko esparruak eduki ditzaten.
- ↘ Auzoko toki arriskutsuetan txangoak eta jarduerak egitea. Esparru bat zenbat eta gehiago erabili, orduan eta seguru eta hurbilago sentitzen dugu.
- ↘ Proposamenak emanaz parte hartzea auzoko parke nagusia nolakoa izan beharko litzatekeen adierazten, heldu den hiletan berriz eraikiko baita.
- ↘ Auzoko nerabeek era autonomo batez koordinatu eta kudeatutako jardueretarako esparru berriak sortu behar dira. Hau da, auzoko adingabeendako lokal komunitarioak behar dira

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

<https://www.observatoriodelainfancia.es/participanda/sandubitxiak/>

<http://umetxea.blogspot.com/p/sandubitxiak.html>

### PARTE HARTZEKO DIAGNOSTIKOA, IRUÑEKO HAUR ETA NERABEEN ARRETARAKO I. PLANA LANTZEKO \_ IRUÑA

#### △ UDALERRIAREN IZENA

IRUÑA

#### △ ENTITATE SUSTATZAILEA

IRUÑEKO UDALA

#### △ HASIERA URTEA

2017

#### △ DESKRIBAPEN LABURRA

Iruñeko haur eta nerabeekin parte hartzeko prozesu batzuk egin dira, Iruñeko Haur eta Nerabeendako I. planaren ildo estrategikoak, helburuak eta jarduerak finkatu aurretik. Denboran apur bat atzera eginda, Iruñeko zenbait auzotan lan egiten zuten eragile sozial komunitarioen diagnostiko komunitario irekiak bultzatzeko borondatea aurkituko dugu; diagnostiko horietan hiriburuko toki zehatzetako pertsona, erakunde, instituzio eta zerbitzuek parte hartzea nahi zuten, betiere, adingabeek esateko dituztenak entzuteko eta eskertzeko espazioak irekitzen zirela.

#### △ FUNTZIONAMENDUA EDO GARATUTAKO EKINTZAK

1. AMIA analisia haur eta nerabeekin harremanetan dauden helduekin, gai hauei dago-kienez:

- Profil sozioekonomikoa eta piramide demografikoa.

- Aisialdia eta astialdia auzoan mutiko, neskato eta nerabeendako. Hezkuntza ez formala. Kultur programazioa. Kirol instalazioak eta auzoan kirola egiteko dauden aukerak.
- Hirigintza: Auzoko zerbitzuen hornikuntza eta ezaugarriak.
- Asoziazionismoa eta parte hartzea auzoko neskato eta mutikoen ongizatean eta bizi kalitatean eragina duten auzotarren proposamenei dagokienez.
- Herritarren segurtasuna, zirkulazioari eta delinkuentziari dagokienez.
- Kulturarteko bizikidetzak.
- Gurasotasuna: familien egoera auzoak adingabeen hazkuntzarako eta hezkuntzarako eskaintzen dituen ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak kontuan hartuta.

## 2. WORLD CAFE.

3. Jarduerak udako ludoteketan gai zehatzekin.

4. Gymkanak.

5. “Guk nahi dugun hiria” lantegiko marrazkiak eta material bisuala.

6. Auzoetako arazoei buruzko elkarrizketak.

7. Harreman sareak (soziogramak).

8. Mapa emozionalak, eremu seguruak eta arriskutsuak identifikatzeko.

9. Gurasotasunari lotutako gai garrantzitsuei buruzko galdetegiak.

10. Eztabaida taldeak.

11. Ibilaldia auzoan.

## △ GAKO ETA ELEMENTU NABARMENGARRIAK

Pertsona adingabeen eta helduen proposamenak eta ikuspegiak ezagutzeko aurrera eram diren prozesuetan, alde aurretik planifikatu gabeko helburu bat lortu da, hain zuzen ere, Iruñeko auzoetan eta toki zehatzetan kokatutako pertsonen, kolektiboen eta organismoen artean lankidetzako eta elkar ezagutzeko sinergiak sortzea.

Hiriko haur eta nerabeekin egin den diagnostiko parte-hartzaileak ezaugarri hauek izan ditu:

- ↳ Erabilitako aberastasun metodologikoa. Auzo bakoitzean ingurune horretan lan egiten zuten agentzia komunitarioen “egiteko moduak” errespetatu eta sustatu dira. Proposatu diren dinamikak eta tailerrak diseinatu aurretik, honako hauek hartu dira kontuan: auzoaren ezaugarrietara egokitutako azterlan ahalik eta xehatuena, neska eta mutilen profilak, ikastetxeen inplikazioa eta konpromisoa, Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzurik baden edo ez, eta Haur eta Nerabeen Sarerik ba ote den, duela gutxi eratuak edo lehenagotik ibilbidea dutenak. Kontuan eduki behar da, izan ere, hiriko egoera ez dela alde guztietan berdina, haurrak eta nerabeak aisialdian eta astialdian artatzeko dispositiboek dagokienez.

Bestalde, aitortu behar da Iruñeko auzo guztietan ez zela harreman estu eta egunerokoa mantentzen Auzoko Unitateen, Ikastetxeen, PEKZen, osasun etxeen eta elkarrean artean. Auzo bakoitza, izan ere, bere ibilbide historikoaren eta hainbat motatako inguruabar ekonomiko eta sozialen arabera konfiguratu da.

- ↘ Beste faktore batzuk ere hartu dira aintzat: denbora prestasuna (ekarpenak biltzerakoan eraginkorrak izan beharra), diagnostikoa egiteko eskura zeuden giza baliabiak, eta boluntarioen lankidetzak ezin baliotsuagoa eduki ahal izatea.

Eskertzekoa da biltzera, hitz egitera eta eztabaidatzera animatu diren pertsona helduen bultzada ere, eskuzabaltasuna erakutsi baitute beren ideiak, ikuspuntuak eta pertzepzioak azaltzean.

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

<https://erabaki.pamplona.es/processes/PlanMunicipalInfanciaPamplona?locale=eu>

## HAURTZAROKO LURRALDEAK \_ VILLATUERTA

#### △ GARAPEN-URTEA

2016-2017

#### △ DESKRIBAPEN LABURRA

Proiektu zehatz hau abiarazteko helburuarekin hasi zuen prozesua Villatuertako Udalak, Otzalder parkean zehazki. Gainazal handiko eremua da, eta osasun zentroa bertan egozteaz gain, bertatik igarotzen da Irantzu ibaia. Lurralde natural, berritzaile eta jasangarria da; jakin-mina eragiten du, errentagarria da eta aurkikuntzara bideratua. Haurrek beraiek pentsatu eta eraikitako lurralde bat.

#### △ XEDEA

Zirkulazioari irekitako bideetan (bizileku eremua, alde zaharra) ibiltzeko eta pertsonen topaketei mesede egiteko moduei dagokienez, hiritarren ohituretan aldaketa eragiteko apustua egiten duten politikak sartzeko beharrari erantzuten dio proposamenak.

Helburu estrategikoak:

- ↘ Haurren parte hartzea.
- ↘ Aisia esparruen kalitatea hobetzea.
- ↘ Haurren Kontseilua sortzea.

#### △ FUNTZIONAMENDUA EDO GARATUTAKO EKINTZAK

Francesco Tonucci italiar pedagogoen proposamenen oinarrituta dago proiektua, baita slow mugimenduetan ere. Horien bidez, uneaz patxada handiagoz gozatzeko aukera berreskuratzen saiatzen da, eta, batez ere, jolasari bizi elementu gisa balioa ematekoa. Hala ere, funtsean, gizakian oinarritzen da, garapen benetan oso-oso lortzeko. Haurren

Eskubideen Adierazpenarekin bat etorritz: “Haurrak aisialdi, jolas eta ekintza kultural eta artistikoetan parte hartzeko eskubidea du”.

Sormenaren garapena bultzatzen da: ideia edo kontzeptu berriak sortzeko gaitasuna, edo ideien eta kontzeptu ezagunen arteko lotura berriak sortzeko gaitasuna, egunerokoan soluzio originalak aurkitzeko. Pentsaera originalaren, irudimen konstruktiboaren, pentsaera dibergentearen edo pentsaera sortzailearen sinonimo da sormena.

#### △ INFORMAZIO GEHIAGO

<http://www.villatuerta.es/ayuntamiento/proyectos-municipales> (Haurren lurraldea)

<http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/ficheros-2/revistas-idea> (Idea aldizkaria, 49. zk., “Hezkuntza eta espazioa 2018 – Educación y espacio 2018”, 143. or.).



## 5 ARAUDIA

### 5.1 NAZIOARTEKOA

- ↘ Nazio Batuen 1959ko azaroaren 20ko Hurren Eskubideen Aldarrikapena.
- ↘ Hurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzarrak 1989ko azaroaren 20an onetsita. Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsita.

### 5.2 EUROPAKOA

- ↘ Hurren Eskubideen Europako Gutuna. Europako Parlamentuak 1992ko irailaren 21ean onetsia.
- ↘ Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak eta Europako Batzordeak 2000ko abenduaren 7an aldarrikatua. 2007an erreformatua.
- ↘ Europako Gutun berrikusia, gazteek tokiko eta eskualdeko bizitzan parte hartzeari buruzkoa. Europako Kontseilua, 2003.

### 5.3 ESTATALA

- ↘ Espainiako Konstituzioa (1978ko abenduaren 6a).
- ↘ 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- ↘ 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- ↘ 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa. 26/2015 Legeak, uztailaren 28koak, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak, aldatua.

### 5.4 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

- ↘ 15/2005 Foru Legea, abenduaren 5ekoa, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa (ikus I. eranskina).
- ↘ 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzkoa (ikus II. eranskina).
- ↘ Nafarroako Foru Komunitatean familia, haurtzaroa eta nerabezarora laguntzeko II. Plan Integrala 2017-2023 (ikus III. eranskina).

## NAFARROAKO GOBERNUAK HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZERAKO DITUEN BALIABIDEAK

## 6

### 6.1 HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ATALA

1. Nafarroako Gobernuaren Herritarren Partaidetzarako Atalak herritarren parte-hartzea sustatzeko dirulaguntzen deialdia

- ↘ Dirulaguntzen deialdia toki entitateei, toki ekintzako taldeei, garapenerako laguntzako GKEei, herritarren elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuei dirulaguntzak emateko, Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea bultzatu eta sustatzeko proiektuak gara ditzaten.

Harremanetan paratzeko: [participacionciudadana@navarra.es](mailto:participacionciudadana@navarra.es)

### 6.2 NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA

#### △ GAZTEENTZAKO INFORMAZIOA

- ↘ Gazteentzako Informazio Batzordea.
- ↘ Nafarroako Gazteentzako Informazio Sarea hobetzeko eta indartzeko laguntzak.
- ↘ Toki erakundeen eta elkarten bulego eta informazio gunetako teknikarientzako prestakuntza.
- ↘ NKGIren web orria: [www.deporteyjuventudnavarra.es](http://www.deporteyjuventudnavarra.es)
- ↘ Sare sozialak: Twiter, Facebooki, Instagram

#### △ DEIALDIA TOKI ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO

- ↘ Deialdia toki entitateei laguntza emateko gazteei buruzko diagnostikoak, gazteen planak, gazteriako teknikariak, elkarrizketa foroak eta jardueren proiektuak finantzatzeko. Deialdi honen xedea da toki entitate horiei laguntzea, partzialki finantzatuz Nafarroako gazteek bizitza sozialean parte-hartze aktibo hobea izan dezaten entitate horiek gauzatzen dituzten programen gastuak.

#### △ DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, GAZTEEN ELKARTEETARAKO

- ↘ Halaber, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak dituen helburuen artean gazteen elkartegintza sustatzea dago, gazteak gizarte bizitzan integratu eta parte hartzeko modua den aldetik. Horretarako, laguntza eman nahi zaie elkarte horiei, gazteentzako programak presta ditzaten.
- ↘ Gazte elkarten errolda.

#### △ AURREKONTU PARTIZIPATIBOAK.

- ↘ Aurrekontu partizipatiboak gazteen parte-hartzea sustatzeko apustu bat dira. Programa horretan gazteak protagonista dira proiektuen proposamenetan, diseinuan eta gauzapenean.

△ NAFARROAKO GAZTEENTZAKO JARDUEREN ESKOLA. NGJE

- ↳ Ikastaroen eta lantegien urteko programazioa, Gazteendako II. Planean hautemandako beharrak edo eskaerak aintzat hartuta. Gazteak ahalduntzea, garapen pertsonal eta kolektiboari begira. Herritartasun aktiboa sustatzeko lantegiak, gazteen elkarteendako prestakuntza ikastaroak, lantegi afektibo sexualak, besteak beste.

△ NAFARROAKO GAZTERIAREN KONTSEILUA

- ↳ Gazteriaren Zuzendariordetzak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin eginiko hitzarmena, gazteen elkartegintza eta parte-hartzea sustatzeko.

△ GAZTEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA

- ↳ Erasmus programa + gazteria.

Ekimen hauen bitartez gazteek parte hartzeko, ahalduntzeko eta trebetasun sozialak garatzeko esparruak sortzen dira. Gainera, gazteek konpromisoak hartzen dituzte gizartearekin, eta era anitzetako proiektuetan inplikatzeko dira.

Gazteek hirian parte hartzeko ekimen berriak sor daitezela sustatzea, neskek eta mutilek parte-hartze orekatua dutela bereziki nabarmentzea, eta elkarteak ez dauden tokiak, isolatutako eremuak zein landaguneak lehenestea.

△ ELKARRIZKETA EGITURATUARI BURUZKO ARAUDIA

- ↳ 93/2017 Foru Dekretua, urriaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baita gazteen politika publikoei buruzko elkarrizketa egituratua

## 6.3 FAMILIAREN ETA ADINGABEEN ZUZENDARIORETZA

Harremanetan paratzeko: [sefamili@navarra.es](mailto:sefamili@navarra.es)





## BIBLIOGRAFIA INTERESGARRIA

## 7

- △ ORIENTACIONES PARA LA CREACIÓN DE ÓRGANOS DE PARTICIPACIÓN INFANTIL Y ADOLESCENTE
  - ↳ Francisco Javier Malagón Terrón. UNICEF, 2016
- △ GUÍA BÁSICA PARA LA CREACIÓN DE CONSEJOS DE INFANCIA Y ADOLESCENCIA EN EL ÁMBITO LOCAL CON ENFOQUE DE GÉNERO
  - ↳ Salud Mármol eta Helena Serrano. UNICEF Andaluziako Batzordea, 2014.
- △ REQUISITOS BÁSICOS QUE DEBEN CUMPLIR LOS PROCESOS DE PARTICIPACIÓN INFANTIL EN EL ÁMBITO MUNICIPAL. LA OBSERVACIÓN GENERAL Nº 12 DEL COMITÉ DE LOS DERECHOS DEL NIÑO COMO REFERENCIA
  - ↳ Carlos Becedóniz Vázquez. Asturiasko Printzerriko Haurren eta Nerabeen Behatokia, 2011.
- △ PONGAMOS A LA INFANCIA EN LA AGENDA POLÍTICA LOCAL. MANUAL BÁSICO PARA RESPONSABLES POLÍTICOS MUNICIPALES
  - ↳ Carlos Becedóniz Vázquez eta Gregorio Aranda Bricio. UNICEF Espainiako Batzordea, 2009
- △ ENTENDIENDO LA PARTICIPACIÓN INFANTIL. IDEAS, ESTRATEGIAS Y DINÁMICAS PARA TRABAJAR LA PARTICIPACIÓN INFANTIL PASO A PASO
  - ↳ Los Glayus elkarte. UNICEF Espainiako Batzordea, 2014



## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA \_ HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA HAURRENTZAKO ETA NERABEENTZAKO SUSTAPENARI, LAGUNTZARI ETA BABESARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 15/2005 FORU LEGEAN

#### II. TITULUA. ADINGABEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

##### △ II. KAPITULUA. ESKUBIDEEN SUSTAPENA ETA BABESA

##### ▶ **21. artikulua. Gizartean parte hartzeko eta asoziazionismorako eskubidea.**

1. Nafarroako administrazio publikoek adingabe guztiek beren inguruko gizarte, kultur, arte eta josteta bizitzan parte har dezaten bultzatuko dute; halaber, adingabeak zer gaik ukitzen dituzten gai horietan esku har dezaten ere bultzatuko dute, duten garapenaren eta gaitasunaren arabera betiere. Horretarako, batetik, hurrenez hurren berariazko jarduketak eta zerbitzuak jarriko dira, eta, bestetik, adingabeei formulak, bitartekoak eta laguntzak jarriko zaizkie eskura, adieraz ditzaten, horien bidez, dituzten interes eta iritziak, haien eskariak jasotzeko bidea izan daitezen eta egiten dituzten proposamenak bideratzeko ere balia ditzaten.

2. Adingabeek, beren eskubideen sustapen eta defentsa jardueri dagokienez nahiz haiei bideratutako laguntza eta babes jarduketei dagokienez, eskubidea dute ekimen eta proposamen jardueretan parte hartzeko.

3. Haur eta gazte elkarteak, fundazioak eta adingabeentzako beste antolamendu mota batzuk izan daitezen sustatuko dute administrazio publikoek, horietako kide izateko eta horien jardueretan parte hartzeko bideak erraztuko dituzte, nahiz eta ezinen diren behartu edo baldintzatu horrelako batean sartzera edo jarraitzera, eta funtzionatzeko eran legedia eta gizarte demokratiko bateko printzipio eta balioak errespetatu ditzaten arduratuko dira administrazio publikoak.

4. Adingabeek boluntariora-jardueretan parte har dezatela sustatuko dute administrazio publikoek.

##### △ VIII. TITULUA. NAFARROAKO ADINGABEAREN KONTSEILUA

##### ▶ **109-112. bitarteko artikulua**

Seigarren xedapen gehigarria. Haurren eta Nerabeen Arretarako Kontseiluak

Haurrak eta nerabeak zaintzeko batzordeak sortuko dira. Zerikusia duten departamentuek, toki entitateek, profesionalek, politikoez, elkarteek gurasoek, haurrek eta nerabeek hartuko dute parte.

## II. ERANSKINA \_ HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA NAFARROAKO PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOARI BURUZKO MARTXOAREN 22KO 2/2019 LEGEAN

### ► **55. artikulua. Haurrek eta nerabeek parte-hartzerako daukaten eskubidea.**

Aitortzen da haurrek eta nerabeek, Nafarroan dauden adingabe guztiek, eskubidea dutela parte-hartze aktiboa izateko, beren garapen ebolutiborako egokia den moduan eta beren dibertsitate funtzionalari egokituta, gizarte zuzenago, solidarioago eta demokratikoago baten eraikuntzan, bai eta bizi diren errealitatea ezagutzeko, haiengan eragin handiena duten arazoak deskubritzeko eta haietarako konponbideak emateko, pixkanaka herritartasun aktiboan sartuz.

### ► **56. artikulua. Haurren eta nerabeen parte-hartzerako eskubidea eraginkor egiteko, ekitate baldintzetan, Nafarroako erakundeek behar diren xedapenak emanen dituzte.**

1. Herritarren parte-hartzerako ekimenek, bai eta haurren eta nerabeen bizitzan eragina duten gaiek ere, administrazio publikoek foru lege honen esparruan egiten dituztenek, haurren eta nerabeen eskubideetan eragina dutenean, behar diren egokitzapenak jasoko dituzte, bai eskainitako informazioan eta komunikazio bideetan, haurrek eta nerabeek haietan parte hartu ahal izateko, bai informazio itzulerarako bideak ezartzerakoan ere, haurrek eta nerabeek parte hartzen duten prozesuetan.

2. Nafarroako Gobernuak bere zerbitzura aritzen diren langile guztiek prestakuntza egokia izan dezaten sustatuko du, haurren eta nerabeen parte-hartzearen arloan dituzten eskubideak ezagut ditzaten, eta bestetik, botere publikoek horren gainean hartu dituzten betebeharez jabe daitezten.

3. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du ikastetxeetan parte-hartze prozesuak susta daitezela, haurrak herritartasunaren agente aktibotzat hartuz, hezkuntza ingurunea, udal mailakoa zein erregio mailakoa, hobetuko duten proposamenak bere egin ditzaten sustatuz, bai eta hezkuntza komunitatean haurren eta nerabeen parte-hartzearen inguruko gaitasun demokratikoa eta herritartasunarena eraikitzen duten jarrera eta baloreen garapena ere.

4. Toki administrazioek jarduketak garatuko dituzte haurren eta nerabeen parte-hartzea beren lurralde eta eskumen esparruan sartzeko; horretarako, toki kontseiluak edo parte-hartze egitura egonkorak sortu eta abian jarriko dituzte, haurrek eta nerabeek osatuak, haiengan zuzenean edo zeharka eragina duten toki mailako gai guztietan kontsulta eta partaidetza eginkizunak izanen dituztenak, eta haien funtzionamendua aldeztuko dute.

5. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute parte-hartze birtualerako espazioak sor daitezela, haurrendako eta nerabeendako irisgarriak; haietan, beren iritziak emateaz gainera, hobekuntza proposamenak eta iradokizunak egiten ahalko dituzte administrazio publiko desberdinen jarduketari buruz.

6. Nafarroako Gobernuak ikerlan eta azterlanak sustatuko ditu eta haietan lagunduko du, haurren eta nerabeen parte-hartzerako estrategia eta tresna berriak eta politika publikoen hobekuntzan izan dezaketen eragina aztertze aldera.

7. Nafarroako Gobernuak toki entitateei lagunduko die haurren parte-hartzerako udal organoak era ditzaten.

8. Nafarroako erakundeek parte-hartze inklusiboa sustatuko dute, eta behar diren jarduketak guztiak garatuko dituzte ahultasun handiena duten taldeetako haurrek eraginkortasunez parte har dezaten sustatzeko.

9. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseilua sortuko du, haurren aholku organo ez lotesle eta partaidetzazko gisa. Organo horrek proposamenak egiten dizkie erakunde autonomikoei eta iritzia emanen du haurrengan eta nerabeengan eragina duten politikei buruz. Kontseilua osatzen duten haurrak eskubide osoko kide gisa joaten ahalko dira, hala nahi badute, Nafarroako Adingabearen Kontseiluaren bilkuretara. Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluaren osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira, haren taxuerari buruz haurrek eta nerabeek beraiek egindako ekarpenak kontuan hartuta.

10. Nafarroako Gobernuak behar diren bideak ezarriko ditu kontu-ematea tenorezkoa eta egokia izan dadin bultzatzen dituen haurren eta nerabeen parte-hartze prozesuetarako, eta lotura berezia izanen dute Nafarroako Haurren eta Nerabeen Parte-hartzerako Kontseiluarekin.

► **57. artikulua. Askatasunez elkartzeko eskubidea.**

1. Haurrek eta nerabeek bermatuta dute Nafarroan haurrentako eta gazteendako elkar-teak libreki eratzeko eskubidea, eta elkarte horietako zuzendaritza organoetan parte hartzeko, lege indardunen eta haien estatutuen arabera.

2. Inongo haur edo nerabe ezin izanen da behartu elkarte bateko kidea izan dadin, ez eta elkarte batean bere borondatearen aurka gera dadin ere, zeren eta haurren parte-hartzerako eskubidea boluntarioa baita.

3. Nafarroako Gobernuak mesedetuko du haurrek eta nerabeek gizartean parte-hartze aktiboa izatea sustatuko duten elkarte eta erakundeak era daitezen.

4. Gazteen elkartegintza sustatzeko Nafarroako Gobernuak egiten dituen jarduketetan, adingabeen parte-hartze aktiboa sustatuko da.

► **58. artikulua. Adierazpen askatasunerako eskubidea.**

1. Administrazio publikoek parte-hartze bideak sustatuko dituzte, egokituak eta irisgarriak, haurren eta nerabeen ideien eta iritzien adierazpen librea erraztuko dutenak beren eskolako eta gizarteko bizitza eta herritar bizitza garatzen den esparru desberdinetan.

2. Nafarroako Gobernuak haurren eta nerabeen iritzi adierazpen librea mesedetuko du, haiek sustatutako hedabideak aldeztuz.

► **59. artikulua. Haiengan eragina duten erabakiak direla eta entzunak eta informatuak izateko eskubidea.**

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bermatu beharko dute haurrek eta nerabeek eskubidea izanen dutela beren interes eta eskubideetan eta beren ongizate

personal, emozional eta sozialean eragina duen informazio guztia lortzeko, hizkuntza egoki eta ulergarrian eta beren inguruabarretara egokitan, duten garapen ebolutiboari eta heldutasunari begiratuta. Materialeak behar diren egokitzapen linguistikoak eta aniztasun funtzionalaren arabekoak izanen dituzte. Informazio horrek egokia eta nahikoa izan beharko du erabakiak modu kontziente eta librean hartu ahal izateko.

► **Bigarren xedapen gehigarria.- Haurren parte-hartzea.**

Nafarroako Gobernuak foru lege honen bertsio bat egingen du haurrendako egokitura, Nafarroako adingabeen artean zabaltzeko.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, behar den erregelamendu garapena egingen du, Nafarroako haurren eta nerabeen parte-hartzerako eskubidea guztiz egikaritu ahal dadin.

► **Laugarren xedapen gehigarria.**

Nafarroako Gobernuaren menpeko ikastetxe publikoek, irakaskuntza institutuek eta lanbide heziketako zentroek, bai eta itunpeko ikastetxeek ere, zeinek bere eskumenen arloan, parte-hartze demokratikoko neurriak ezarriko dituzte, foru lege honetan jasotako printzipio eta aurreikuspenekin bat.



### III. ERANSKINA \_ HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA 2017-2023 ALDIRAKO NAFARROAKO KOMUNITATEKO FAMILIA, HAUR ETA NERABEEN LAGUNTZAKO II PLAN INTEGRALEAN

#### IV. ZATIA

##### △ 7. JARDUERA EREMUA: ARRETA KOMUNITARIOA ETA SAREKO LANA

###### ▶ 1. Arreta komunitarioa

1.2 Komunitatea agertoki pribilegiatua da hezkuntza eta parte-hartzea sustatzeko.

“Prebentzio komunitarioan, helburua da haurrek eta gazteek bizitza komunitarioan parte hartzea, eta espazio komunitarioen kudeaketan guztiz parte hartzen duten haurren eta gazteen erakundeak sortu eta indartu behar dira horretarako. Erakunde horiek haurrak eta gazteak akuilatu beharko dituzte, borondatezko talde proiektuak, batez ere laguntza behar duten haurrei eta gazteei lagundu nahi dieten proiektuak, antola ditzaten (NBE 1999, C37).

Komunitatean “Prebentzio komunitarioa” parte hartzea bizitza sozial eta komunitariorako, gizarte eta hezkuntza proiektuak antolatzeko zein besteei eta norberari laguntzeko (elkartasuna) behar diren ezagutzak irakasteko eta ikasteko prozesu bat da. Garapenean zeharreko hezkuntza prozesuak adin nagusitasunera iritsita gizartean erabateko parte-hartzea izatera darama (Jaúregui 2015). “Esku-hartzearen ikuspegi horretan, auzoak komunitate bateko sektore ezberdin guztien arteko bat etortze eta topaketarako espazioak eta eremuak sortzen ditu. Auzoa lurralde oinarritzat hartzen da, zeinak gizarte loturen dentsitate, jarraitutasun eta intentsitate esparru egokia eskaintzen duen (Iruñeko Udala, Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorra, 2012).

## IV. ERANSKINA \_ HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO ORGANOA ABIAN PARATZEA PLANIFIKATZEKO FITXAREN EREDUA

Iradokizun modura, txantilo honetan 3.3 atalean (Haurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa abian paratzea) zehaztutako urratsak bildu ditugu:

Esparrua edo jarduketa ildoak	Ekintza	Aurreikusitako epea	Arduradunak	Baliabideak		
				Giza baliabideak	Materialak	Ekonomikoak



Toki-erakunderen batek kanpoko laguntzaile teknikoak kontratatzeko asmoa badu eta horri buruzko aholkua behar badu, gurekin harremanetan jar daiteke, hemen:

**Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua | Nafarroako  
Gobernua**

**Helbidea:** Amaia kalea 2A, 2.a | 31002 Iruña

**Tel.:** 848 426 006 | 848 427 038

**Helbide elektronikoa:** [participacionciudadana@navarra.es](mailto:participacionciudadana@navarra.es)



